

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia




2024KOMEMORIA

2024ko abendua

AURKIBIDEA

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ORGANIGRAMA	3
GOBERNU-ORGANOAK	4
KONTSEILU ERREKTOREA	4
AURREKONTUAK	6
AKADEMIAREN JARDUERA	7
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA	7
BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA	7
POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (PLEA/DZ)	11
ARAUBIDE JURIDIKOAREN, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ETA GAI OROKORREN ALORRA	16
ARAUBIDE JURIDIKO ETA PERTSONAL ARLOA	17
KONTRATAZIO ETA AURREKONTU ARLOA	24
ANTOLAKETA ETA GARAPEN ARLOA	35
AZTERKETA ETA PLANGINTZA ALORRA	49
PRESTAKUNTZA-JARDUERA	50
JARDUNALDIAK	63
HAUTAKETA- ETA EBALUAZIO-ARLOA	65
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIA-KIDEGOAK ETA UDALTZAINGO-ZERBITZUAK (EUSKAL POLIZIA)	65
ERTZAINZA	65
UDALTZAINGOA	66
UDALEK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAK	66
UDALTZAINGOKO BITARTEKO AGENTEAK HAUTATZEKO PROZESUAK	66
UDALTZAINGOKO LAGUNTZAILEAK HAUTATZEKO PROZESUAK	67
UDALTZAINGOKO LANPOSTUAK FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK	67
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SUTEAK PREBENITZEKO ETA ITZALTZEKO ZERBITZUETAKO HAUTAKETA-PROZESUAK	67
BESTE BATZUK	67

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ORGANIGRAMA



GOBERNU-ORGANOAK

Akademiako **Kontseilu Errektorea** eta **Zuzendaritza Nagusia** dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gobernu-organoak.

KONTSEILU ERREKTOREA

Kontseilu Errektorea zenbait arlotako 21 ordezkari osatzen dute, eta Segurtasuneko sailburua du buru. Jarrian ageri den taulan zehazten da 2024ko osaera.

PRESIDENTEA	Bingen Zupiria Gorostidi	Segurtasuneko sailburua
PRESIDENTEORDEA	Ricardo Ituarte Azpiazu	Segurtasuneko sailburuordea
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ordezkaria	Miren Dobaran Urrutia	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia
Segurtasun Saileko ordezkaria	Joana Egiluz Ibarguen	Babes Zibileko sailburuordea
Segurtasun Saileko ordezkaria	Miriam Anitua Aranzabal	Giza Baliabideen zuzendaria
Segurtasun Saileko ordezkaria	Victoria J. Landa Moñux	Ertzaintzako zuzendaria
Segurtasun Saileko ordezkaria	Joseba Zorrilla Ibañez	Larrialdiei Aurre Egiteko eta Metereologiako zuzendaria
Segurtasun Saileko ordezkaria	Asier Erkoreka Arruza	Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria
Aurrekontu, Ogasun eta Finantzetako eskumena duen sailaren ordezkaria	M^a Luz Ruiz Melendo	Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzuen zuzendaria
Arabako Lurralde Historikoko ordezkaria	Alberto Amenabar Ajuriaguerra	Arabako Foru Suhiltzaileen zuzendari gerentea
Bizkaiko Lurralde Historikoko ordezkaria	Ager Izagirre Loroño	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua

Gipuzkoako Lurralde Historikoko ordezkaria	Irene Berasaluze Lazkano	Gobernantzako foru-diputatua
Hiru hiriburuetakoko udalen ordezkaria (txandaka, aldiko bat)	César Fernández de Landa Manzanedo	Segurtasuneko zinegotzia. Gasteizko Udala
	Amaia Arregi	Bilboko Udala
	Martin Ibabe Eceiza	Donostiako Udaleko Segurtasun, Suhiltzaile eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkaria
Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien ordezkaria (EUDEL)	Maialen Gurrutxaga	Elgoibarko alkatea
Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien ordezkaria (EUDEL)	Joseba Ilari Etxeberria Calvo	Astigarragako Udaleko zinegotzia
Ertzaintzan ordezkari-tza handiena duen sindikatuaren ordezkaria	David Calleja Gauna	ERNE
Ertzaintzan ordezkari-tza handiena duen sindikatuaren ordezkaria	Roberto Palma Gorostiza	ESAN
EAEko toki-administrazioan ordezkari-tza handiena duen sindikatuaren ordezkaria	David Fernández de Gamarra Egurrola	ELA – Toki-administrazioa
Idazkaritza Nagusia	Amaya Angulo Garzaro	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria

AURREKONTUAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean ezarritakoari jarraikiz (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2023ko abenduaren 29koa, 247. zenbakia), honela egituratu da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren 2024ko ekitaldirako aurrekontua, barnean harturik kreditu-txertaketak eta -minorazioak:

KAPITULUA	HASIERAKO AURREKONTUA	AURREKONTU EGUNERATUA
1.- LANGILEEN GASTUAK	11.695.261 €	11.513.139,27 €
2.- FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	7.188.739 €	6.850.868,90 €
3.- FINANTZA-GASTUAK	1.000 €	1.000 €
4.- GASTU ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK.	890.000 €	980.000 €
6.- INBERTSIOAK	50.000 €	479.991,83 €
8.- FINANTZA-AKTIBOAK HANDITZEA	10.000 €	10.000 €
GUZTIRA	19.835.000 €	19.835.000 €

Hauek dira konprometitutako edo xedatutako gastuak:

II. kapitulua: 6.809.763 €

xedatuaren ehunekoa: % 99,4

VI. kapitulua: 471.352 €

xedatuaren ehunekoa: 98,2 %

AKADEMIAREN JARDUERA

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA

Berdintasunerako Administrazio Unitatearen eginkizun nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea eta bermatzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren jarduera-esparruan. Alde horretatik, bat egiten du Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren lege-xedapenekin eta gai horrekin loturiko beste araudi batzuekin. Estrategia duala da horretarako ildo estrategiko nagusia, zeinaren xedea baita, alde batetik, genero-ikuspegia txertatzea politika publiko eta lan-prozedura guztietan, eta, bestetik, ekintza espezifiko eta bereziak ezartzea genero-desberdintasunei zuzenean heltzeko.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak jarduera nagusi hauek egikaritu ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan:

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren II. Berdintasun Plana

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 2017an onetsi zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2017-2021). Lehenbiziko plan hori eta haren ondorengo ebaluazioa oinarri hartuta, Akademiak gizon-emakumeen berdintasunaren arloan datozen lau urteetan jorratu beharreko funtsezko alderdiak identifikatu dira.

Akademia berez Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Berdintasun Planaren aplikazio-eremuan dagoen arren, konpromisoa erakutsi nahi izan du emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, eta horretarakoxe diseinatu du lan-dokumentu hau, han ezarritako jarduerak modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko.

Garatutako planak Akademiako gizon-emakumeen berdintasunaren arloko lan-ildoak biltzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzako zein haren sailtako beste plan batzuk hartzen ditu oinarri gisa. Barne-dokumentu bat da, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko egin beharreko jarduerak jasotzen ditu. Horrenbestez, II. Plana berdintasunaren arloan jarduteko gida gisa planteatzen da, eta plan horretan oinarriturik garatuko dira urtero-urtero jarduketa-plan zehatzak. Eginahal horretarako, lan-kronograma bat ez ezik, planteatutako jarduera bakoitzari esleitutako aurrekontua ere ezarriko da.

II. Berdintasun Plan honen bidez, Akademiak emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa erakusten eta indartzen jarraitu nahi du, herritarren segurtasuna bermatzeko arduradunak trebatzeko erreferentzia-erakundea den heinean. Lanean jarraitu nahi dugu erakundearen jardun osoan genero-ikuspegia txertatzeko, eta, eginahal horretan, kontuan hartuko ditugu emakumeen errealitatea eta premia espezifikoak —historian zehar kontuan hartu ez direnak, eta, horrenbestez, diskriminazioa eta ageriko eskubide-urraketa ekarri dutenak—.

Hori dela eta, Akademiak konpromisoa hartzen du genero-ikuspegia modu transbertsalean txertatzeko bere lan-prozeduretan, bi helburu argirekin:

- 1) Segurtasun publikoko langile guztiak trebatzea, eta, horretarako, printzipio orientatzaile gisa hartzea emakumeen eta gizonen berdintasuna, aniztasunarekiko errespetua eta indarkeria matxista desagerrarazteko borroka.
- 2) Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea Akademiak egiten dituen hautaketa-prozesuetan eta prestakuntza-aldietan.

II. Berdintasun Plan honetan jasotako jardueren aplikazio-eremuak barnean hartzen ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian lan egiten duten pertsona guztiak, baita hari zerbitzuak ematen dizkieten edo han prestakuntza-ikastaroak egiten ari diren guztiak ere. Era berean, planteatutako helburuari erantzuteko, 4 ardatz estrategiko, 8 helburu, 18 neurri eta 66 jarduera zehatz planteatzen dira, eta, horretarako, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia hartzen da egitura eta esparru-tresna gisa. Hauek dira lau ardatz estrategikoak:

- Gobernu ona.
- Emakumeak ahalduntzea.
- Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdinzalea eta jasangarria.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ibilbidea gauzatzea

2024an ere, 2023an diseinatu eta bultzatutako berdintasunaren arloko prestakuntza-ibilbidean jarraitu dugu, zeina 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 18. artikulua betetzeko diseinatu eta bultzatu baitzen —artikulu hori, hain justu, euskal botere publikoetako langileak trebatzeaz mintzo da—, eta, zehazki, “*beren langile guztiei emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan derrigorrezko oinarrizko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko*”. Kasu honetan, prestakuntza hartzen dugu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren lan-prozedura guztietan genero-ikuspegia txertatzeko funtsezko zutabetzat, trebakuntza espezifikoa baita, Akademian lan egiten duten langileei zuzendua. Aurten, trebakuntza-ibilbidearen ardatza izan da prestakuntza espezifikoa eskaintzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian zerbitzu ematen duten guztiei, genero-ikuspegia modu transbertsalean txertatu ahal izateko.

Sentsibilizazioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin dira, eta, eginahal horretan, aintzakotzat hartu dira nazioarteko egunak, hala nola martxoaren 8a eta azaroaren 25a.

Koordinazioa berdintasun-politiketan

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Segurtasun Sailarekin koordinatuta lan egin du sail horren berdintasun-planak bultzatzeko eta haien jarraipena egiteko. Zehazki, Emakumeak Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agentearen kategorian sartzeko 2026rako I. Sustapen Planean ezarritako jarduerak sustatu dira, eta, horretaz gainera, Ertzaintzaren I. Berdintasun Plana bultzatu da.

Araudia betetzen dela zaintzea eta haren jarraipena egitea

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egiten dituen hautaketa-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia betetzen dela zaintzea.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea

Aurten, sexuagatiko eta sexuan oinarrituriko jazarpen-kasuetan esku hartzeko gida bat egin da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, Segurtasun Sailak arlo horretan duen araudia oinarri hartuta. Gidaren helburu nagusia da sexuagatiko eta sexuan oinarrituriko jazarpena prebenitzea gure lan-ingurunean, eta, xede hori lortzeko, sentsibilizazio-neurriak bultzatu dira.

Aholkularitza konfidentziala sortzea

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako kideen eskura dagoen baliabide bat da. Haren bidez, aukeran izango dute, besteak beste, kontsultak egitea, informazioa eskatzea edo proposamenak eta iradokizunak helaraztea sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari buruz, edo are diskriminazioari edo jokabide sexistei buruz. Aholkularitza-zerbitzu horren egitekoa da diskriminaziotzat, sexu-jazarpentzat edo sexuan oinarritutako jazarpentzat har daitezkeen jokabide-jakinarazpenak jasotzea, ukitutako pertsonari orientazioa eta aholkularitza ematea, eta, kasuak hala eskatzen badu, babes-neurri egokiak ematea Akademiako edozein pertsonari. Hala, pertsonen duintasuna eta aniztasuna errespetatu nahi dira, eta babestu egin nahi dira haien osasuna eta gizon-emakumeen arteko berdintasun-printzipioa. Horretaz gainera, Akademiak sustatu eta zaindu nahi duen erakunde-kulturak lagungarria izan nahi du errespetua eta diskriminaziorik eza jasotzeko eskubidearen aurka egiten duen zernahi jokabide identifikatzeko eta gaitzesteko.

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (PLEA/DZ)

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak helburu hauek ditu: batetik, ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketa babestea, eta, horretarako, informazio-baliabideak eskuratzen eta zabaltzen laguntzea; eta, bestetik, jakintza sortzeko prozesuetan laguntzea, dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako profesionalei eta ikasleei zuzendurik, dela Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistema osatzen duten pertsona guztiekin pentsaturik.

Ildo horretan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak jarraian zehazten den jarduera erregistratu du 2024an.

Dokumentu-funtsa

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak 8.873 erregistro bibliografiko ditu guztira, eta aldizkako 31 argitalpenen (aldizkariak) harpidetza kudeatzen du erabiltzaileentzat.

Gainera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak aldizkako beste 784 argitalpen elektronikoren alertak kudeatzen ditu, berez ez badira ere bere dokumentu-funtsaren parte (Interneten eskura daitezke testuak osorik, hala nola Google Akademikoan, DIALNET atarian...). Horien artean, erakundeek sortutako etengabeko baliabide ugari daude, hala nola memoriak, urtekariak, zirkularrak, txostenak eta urteko planak... Era berean, Eusko Jaurkitaren BIBLIOTEKAK SAREAREKIN batera, zenbait datu-basetarako sarbidea kudeatzen du (Aranzadi, Wolters Kluwer...).

Monografieiei dagokienez, guztira 374 obra erretiratu dira katalogotik 2024an. Horretarako, zenbait irizpide hartu dira kontuan, hala nola edukiak zaharkiturik eta/edo larriki hondatuta egotea. Alabaina, Akademiako zuzendaritzaren oniritziarekin erretiratu dira horiek guztiak. Aldi horretan bertan, beste 14 monografiari eman zaie alta katalogoan.

Mailegu-zerbitzua

Oro har, Akademiako arlo eta sailei ematen zaizkie maileguak. "Talde" horietan, profesionalek modu mankomunatuan eskuratu ditzakete monografiak.

Errazago erabili eta kontsultatu ahal izateko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak mailegu erdiiraunkorrak eskaintzen ditu, eta guztira 1.073 mailegu aktibo daude arlo eta sailetan.

Dokumentuak Eskuratzeko Zerbitzua

Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistemako langileek 756 dokumentu eskatu dizkiote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroari 2024an. Hona hemen banakaturik:

KONTSULTA- EDO ESKAERA-MOTA	2024
Kontsulta orokorren kopurua [Besteak beste: unean uneko informazioa eta bilaketak, desideratak, bibliografiak, erabiltzailearentzako orientabideak, hautaketa-prozesuei buruzko kontsultak...]	15
Eskatutako eta emandako bestelako dokumentuak	3
Eskatutako eta emandako artikuluak [Horietatik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak 24 eskatu dizkie beste liburutegi batzuei; hau da, liburutegien arteko mailegua]	738
Guztira	756

Eskaera horien % 100 bitarteko telematikoak baliatuz egin dira, eta, zehazki, posta elektronikoz. Hortaz, dokumentazioaren formatua elektronikoa izan da, pentsatzekoa denez.

Informazioaren Hedapen Selektiboko Zerbitzua:

2024an, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak agiri hauek prestatu eta banatu ditu erabiltzaileen artean:

- **183 alerta-buletin**, segurtasunarekin lotutako eremu guztietako dokumentu berriak jasotzen dituztenak: erreferentziak biltzen ditu, eta erreferentzia bakoitzak dokumentua osorik eskuratzeko esteka jasotzen du.

Hona hemen edukiak:

- Aldizkarietako artikuluak (533 erreferentzia).
- Baliabide jarraituak (372 erreferentzia guztira), eta, horien artean, aldizkariak (urtekariak, urteko txostenak...), monografiak eta monografiaren kapituluak, unibertsitate-lanak (gradu eta master amaierako lanak eta doktorego-tesiak), ebazpen judizialak (Europar Batasuneko Justizia Auzitegirenak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiarenak, Auzitegi Gorenarenak, Justizia Auzitegi Nagusienak, Probintzia Auzitegiak), instituzio eta erakunde publiko zein pribatuen dokumentazioa (lanak eta azterlanak), eta bestelako literatura grisa.
- **Aldizkari ofizialen 183 laburpen** (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, COM agiriak, Estatuko Aldizkari Ofiziala, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak).

Laburpen horiek egunero jasotzen dute Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemari eragiten dion araudia,

- eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroaren erabiltzaileen artean banatzen dira,
- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren erabiltzaileek errazago aurkitu eta kontsultatu ahal izateko araudi hori. Hala, informazio garrantzitsua identifikatu ondoren (adibidez, hautaketa-prozesu guztiak), sailkatu, kategorizatu eta intranetean argitaratzen da.
- **Informazioaren hedapen selektiboari dagozkion 18 bidalketa** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Trafiko eta Bide Segurtasuneko Atalera.

Erabiltzaileak

Mailegu-zerbitzuari dagokion atalean jasotzen denez, maileguak Akademiaren arlo eta ataletara egiten dira (25 ingurutan taldekatzen dira profesionalak).

Erabiltzaileek—Akademiako, Ertzaintzako, Segurtasun Saileko, udaltzaingoetako eta larrialdietako profesionalak, besteak beste—egunero jasotzen dituzte aldizkari ofizialen laburpenak eta beraiei dagozkien gaiekin lotutako alertak Dokumentu Elektronikoak Eskuratzeko Zerbitzuaren eta Informazio Elektronikoaren Hedapen Selektiboko Zerbitzuaren bidez.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak guztira 756 eskaera jaso ditu. Honela banatzen dira, erabiltzaile-mota eta generoa kontuan hartuta:

ERABILTZAILA-MOTA	2024ko ehunekoa
PLEA	% 65
SEGURTASUN SAILA	% 24
ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOA	11%

GENEROA	2024ko ehunekoa
Emakumeak	% 65
Gizonak	35 %
Ez-binarioa	0 %
Beste batzuk (erakundeen eskaerak...)	0 %

Liburutegien arteko lankidetzak

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroa Eusko Jaurlaritzaren BIBLIOTEKAK Liburutegi Sarearen parte da, bai eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen parte ere (hots, udal-liburutegiak).

Zehazki, Dokumentazio Zentroaren katalogoa sartuta dago Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen onlineko katalogoan (OPAC). Katalogo hori datu-base bibliografiko eta dokumental handi bat da, eta Euskadiko liburutegi eta dokumentazio-zentroetan eskuragarri dagoen informazioa biltzen du, bai Euskadiko udal-liburutegietakoa, bai Eusko Jaurlaritzako liburutegietakoa. Badu beste abantaila bat ere: Internetera konektatutako edozein ordenagailu edo gailutatik kontsulta daiteke. Gainera, txartel bakarrarekin (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoa) balia daitezke liburutegi guztiak, baita gurea ere.

Katalogoaren atarira sartzeko, egin klik azpimarratutako esteka urdin honetan: [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea / Red de Lectura Pública de Euskadi](#)

Ondorioa

Monografiak ez dira jakintza sortzera bideratutako edukiak zabaltzeko elementurik garrantzitsuena. Argi dago segurtasuneko profesionalen komunitatearen apustua zein den: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroa eguneratuta egotea ideia, joera eta jakintza berrien inguruan. Eta, helburu hori lortzeko, dokumentaziorik eguneratuena baliatzen du. Eskuarki, etengabeko baliabide gisa argitaratu ohi du (784 guztira), eta barnean hartzen ditu aldizkako argitalpenak (aldizkariak), urtekariak, txostenak eta aldizkako planak...

ARAUBIDE JURIDIKOAREN, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ETA GAI OROKORREN ALORRA

Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren mende eta hark gainbegiratuta, Araubide Juridikoaren, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Gai Orokorraren Alorraren egitekoa da Zerbitzuen Zuzendaritzaren eskumeneko jardun-arloak kudeatzea. Bereziki, eginkizun hauek ditu:

- Administrazio-prozedurak izapidetzea.
- Erakunde autonomoaren aholkularitza juridikoa.
- Jurisdikzio-prozeduren jarraipena eta kontrola, bai eta hari egokituriko ebazpenena ere.
- Langileen ohiko kudeaketa.
- Barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, eta, bereziki, erregistroa eta artxibategi orokorra kudeatzea.
- Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea, eta langile propioak zein Ertzaintzaren zerbitzura diharduten funtzionarioak euskalduntzeko prozesua kudeatzea.
- Akademiaren kudeaketa ekonomikoa.
- Ondare- eta kontratazio-espedienteak kudeatzea.
- Eduki ekonomikoa duten aurreproiektu eta proiektuek, hitzarmenek eta, oro har, eduki ekonomikoa duen jarduera orok aurrekontuetan eta ekonomian duten eragina aztertzea eta gainbegiratzea.
- Erakunde autonomoaren ondarea mantentzea eta kontserbatzea.
- Baliabide-hornidura kudeatzea, eta azpiegiturak zuzkitzea eta kudeatzea.
- Akademiako sistema eta aplikazio informatikoak kudeatzea eta mantentzea.

Horretarako, Araubide Juridikoaren, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Gai Orokorraren Alorra hiru arlotan egituratzen da:

- Araubide Juridiko eta Pertsonal Arloa.
- Kontratazio eta Aurrekontu Arloa.
- Antolaketa eta Sistemen Arloa.

ARAUBIDE JURIDIKO ETA PERTSONAL ARLOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Araubide Juridiko eta Pertsonal Arloari dagozkio akademiaren berezko giza baliabideak kudeatzeko eta administratzeko jarduera guztiak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako oinarrizko eskalako agente izan nahi duten ikasleak sartzeko administrazio-kudeaketak ere. Horri dagokionez, bi kolektiboon kotizazio-altekin eta -bajekin loturiko mugimenduak kudeatzen ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean.

I. kapituluko eta IV. kapituluko zenbatekoen kalkulua ere egiten dira aurrekontuen aurreproiektua egiteko, eta, langile lan-kontratudunen eta praktiketako ikasle funtzionarioen nomina-sistemari dagokionez, gainbegiratu eta kontrolatu egiten ditu haien guztien nominak. Diruarekin loturiko ildo horretan, kalkulatu eta esleitu egiten da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudun guztien ordainsari aldakorra, bai eta irakasle-lanetan aritzen diren funtzionarioena ere.

Era berean, lan- eta administrazio-arloko jarduketak lege ezarritakoari jarraikiz egiten direla ziurtatzeko, aholkularitza-lan mardula egiten du Akademiako organo guztietara zuzenduta. Horretarako, idatzizko txostenak egiteaz gainera, telefono bidezko arreta ere eskaintzen die erakunde autonomoaren arlo guztiei, baina baita profesionalei, ikasleei, polizia-funtzionarioei, udaletako teknikariei eta herritarrei ere, oro har. Era berean, berak antolatzen ditu Akademiako erregistro-sistema eta artxibo orokorra.

Hautaketa-prozesuak gero eta gehiago judizializatzearen ondorioz, bestalde, ugaritu egin dira administrazio- eta lan-arloetako prozedura judizialak, eta horrek eragina izan du arlo honetako langileen lan-kargan; izan ere, zuzendaritza nagusiak edo administrazio-zuzendaritzak hartu beharreko ebazpen-proposamenak egiteaz aparte, prozedura judizialen jarraipena eta kontrola egitea ere eskatzen du. Ildo horretan, beharrezkoa da administrazio-espeditatea bera osatzen duten agiriak bidaltzea, bai eta kanpoko beste eragile batzuek eskatutako txosten juridikoak helaraztea ere, eta, era berean, beste zenbait jarduera ere egin behar izaten dira, aurkaratutako erabakiak hartu izana egiaztatzeke eta erabaki horien oinarriak zehazteke.

Azkenik, 2024ko ekitaldian eragin handia izan du aldi baterako langile lan-kontratudunen enplegua finkatzeko prozesuak eta erretiro partzialak hartzeko aukera eskaintzeak. Era berean, izan du inpakturik Ertzaintzan zein udaltzaingoetan gora egiteko, espezializatzeko eta sartzeko hautaketa-prozesuetarako deialdi ugari egiteko joerari eusteak. Horren guztiaren ondorioz, nabarmen areagotu dira lan-kontratuen egoerak aldatu izanarekin loturiko kudeaketa-lanak; halaber, praktiketako funtzionarioentzako destino-eskaerak eta -esleipenak kudeatu beharra egokitu da, baita hautaketa-prozesuetako epaimahai medikoekin lankidetzan aritu beharra ere, besteak beste.

Hori guztia kontuan hartuta, zalantzarik gabe esan daiteke ekitaldi hau izan dela oparoenetako bat Araubide Juridiko eta Pertsonal Arloak izan dituen eginkizunei dagokienez. Lan-karga horri guztiari erantzuteko, alabaina, ez dira ugaritu giza baliabideak; aitzitik, murriztu egin dira zenbait gorabehera direla eta. Horren guztiaren ondorioz, arlo horretan ohiko lanpostuan aritzen diren langileei modu esponontzian areagotu zaizkie esleitutako eginkizunak.

Langileen egiazko murrizketa hori gorabehera, hauek dira 2024an orain arte dokumentatutako jarduerari buruz jasotako datuak:

Langileak kudeatzea

Erregistroa, informazioa eta izapidetze elektronikoa

- Telefono bidezko arreta:
 - Akademiako telefonogunea eta hautaketa-prozesuetako kontsultak.
- Erregistroa:
 - Sarrerak: 1.405 dokumentu erregistratuta
 - Irteerak: 434 dokumentu bidalita
- Argitalpenak:
 - Gurenet: 84
 - Arkaute webgunea: 134
 - EHAA: 4
 - Hautaketa-prozesuetarako aplikazioa: 134
- Administrazio-izapidetze elektronikoa:
 - Tramitagune: 245
 - Avantius zitazio judizialak: 165
- Kudeaketa Akademikoa aplikazioko eskola-absentziak: 1.450 erregistro
- Sartzeko hautaketa-prozesuetako eskabideak kudeatzea: 4.600.

- Hautaketa-prozesuetako dokumentazioa biltzea: 1.600
- Istripu-mutualitateari izapidetutako laguntza-partek: 125
- Bajarik gabeko istripuen zerrenda: 40
- Lan-istripua: 6

Langile lan-kontratudunen ordutegia kontrolatzea

- 3.210 espediente izapidetu dira denborak kudeatzeko moduluan, honela banakatuta:
 - Baimenak eta presentziak: 2.938
 - Ordezkapenak: 4
 - Lanaldi-mota aldatzea: 7
 - Izapidetze aurreratuko erretiluko baliogabetze-eskaerak: 261
- EIZUren bidez ordezkapenak grabatzea, zerbitzu-beharrengatik lanaldi-aldaketaren bat gertatzen denean: 35 eskaera.
- Absentismoak grabatzea greba orokorreko egunetan, fitxatzeak egiaztatu ondoren: egun bat.
- Eskatutako lanaldi-aldaketak horretarako ezarritako epeetan egitea, esleitutako ordutegi-plantilla aldatuta.
- Ordutegi-arau berriak sortzea, adingabeak zaintzeagatik familia eta lana kontziliatzeko lanaldi-murrizketen ondotik.
- Irakasleen eta ostalaritzako langileen 2025eko egutegi berriak zehaztea, zuzendaritzak baliozkotu ditzan.
- Fitxatzeko txartelak gaitzea, desgaitzea eta ordeztea: 35 txartel berri langile lan-kontratudunentzat eta 427 ikasleentzat.

SAP eta GPEIZU espedienteak. Nomina. Lan-kontratazioak

Epaimahaiei ordaintzea	7
Lankidetzak ordaintzea	81
Aurrerakinak izapidetzea	18
Norbere kontuetarako baimen-eskaerak	1
Behin betiko bajak	14

Edoskitze-kalkulua	2
Bateragarritasunak	2
Lanpostua estaltzea	25
Aldi baterako lan-kontratazioa	2
Aldi baterako bitarteko lan-kontratazioa	9
Errelebo-kontratua	3
Enbargoak	--
Eszedentziak	1
Izendapen askeko lanpostua behin betiko betetzea	--
Gizarteratze Funtsean sartzea	4 ⁰
Desgaitasunak	1
Erretiroak	6
Kostu gordinaren zerrendak	10
Datu pertsonalak aldatzea	--
Aitatasunak/amatasunak kalkulatzeko eta ziurtatzea	4
Memoria ekonomikoak egitea eta kontratazioa	--
Legezko zaintzarako lanaldi-murrizketa	--
Lanaldi-murrizketak	--
Berriro laneratzea	3
Borondatezko uko-egiteak	4
GIP espedienteak	94

Zeregin zehatz horietaz gainera, Pertsonal Arlo langileek jarduera hauek ere egiten dituzte:

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudun guztien ordainsari aldakorra.
- XXXII. promozio kontingenteari arreta ematea, haien zalantza eta eskaera pertsonalak argitzeko, bai eta udaltzain batzuei eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunei ere.

- XXXII. promozioko langile lan-kontratudunen eta ikasleen ALTEN eta BAJEN mugimenduak jasotzea diruzaintzan.
- Aldi baterako lan-poltsetako langileen eskaerak.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langileen titulazioak eta ikastaroak kudeatzea.
- Askotariko ziurtagiriak egitea, bai langile lan-kontratudunentzat, bai ikasleentzat.
- Jakinarazpenak egitea Zentroen Arteko Batzordeari eta Akademian ordezkaritza duten sindikatuei.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunen administrazio-espeditente pertsonalak lortzea eta mantentzea.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langileen nominak gainbegiratzea eta kontrolatzea, baita prestakuntza-ikastaroko Ertzaintzaren promozioko kontingentearenak ere.
- APFen bilera-aktak kudeatzea, izapidetzea, kalkulatzea eta egitea, harik eta esleitu arte.
- LANBIDEn enplegu-eskaintzak jasotzea eta helaraztea: 13

Araubide juridikoa

Hautaketa-prozesuak

- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioak hautatzeko prozesuen idazkaritza teknikoa: 9
- Udaltzainak eta bitarteko laguntzaileak hautatzeko prozesua: 2

Ebazpenak: Barnean hartzen diren ebazpenen artean ageri dira, besteak beste, ikasketa-planak onestekoak, ikastaroen hasierei buruzkoak (kanpokoak, eguneratzekoak eta hobetzekoak, sartzekoak, postuz igotzekoak, espezializatzeakoak...), argitaratzeko eginbideak, ikastaroak osorik eta/edo partzialki baliozkotzekoak, eta epaiak betearaztekoak: 589

Administrazio-espeditenteen ebazpenak

- 2024an hasitako administrazio-espeditenteak: 337
- Urtean zehar ebatzitako administrazio-espeditenteak: 485
- Laneko espeditente judizialak: 10

Prozedura judizialak

- Espedienteak eta frogak epaitegietara bidaltzea Avantiuz bidez: 195
- EHAako deiak: 70
- Tasa judizialak erreklamatzeta: 15
- Dei pertsonalak: 14
- Gaiak jasotzea eta espedienteak kudeatzea, Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren aplikazioaren bidez: 620

Beste zenbait jarduketa

- Txosten juridikoak: 6
- Erabakiak idaztea: 6
- IVAPeko hizkuntza-eskakizunetarako deialdien emaitzak argitaratzea: 1
- Profilen erregistroa eguneratzea: 10
- Aktak egitea: 4
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ondare-erantzukizuneko espedienteak izapidetzea: 1

Lan-gatazkak konpontzeko zerbitzua: 2

Itzulpenak eta hizkuntza-normalizazioa

Itzulpena:

- 237 itzulpen, eta unean uneko zalantza gehiago argituta

Hizkuntza-normalizazioa:

- IVAPen ohiko deialdietako lanak kudeatzea, EAEko Administrazio Orokorreko langileentzat (gure kasuan, Akademiako langileentzat) euskara-ikastaroak antolatzeke, eta, zehazki, 1., 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak prestatzeke.
- IVAPen ohiko deialdiei dagozkien eginkizunak kudeatzea, Akademiako langileei zuzenduriko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plana

VII. Plangintzaren bigarren urtea kudeatzea eta ezartzea (erakundearen edo organoaren plana onartu izanaren ziurtagiria bidaltzea, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartu izanaren ziurtagiria Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari bidaltzea, Hizkuntza Normalizaziorako Zerbitzuarekin eta Elhuyarreko teknikariekin bilerak egitea Erandion, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin bilerak egitea...).

- ELEBI Ertzaintza Programa: Akademian zerbitzu-eginkizunetan dauden ertzainekin urtero egiten diren bi deialdiak kudeatzea, jarduera elebiduneko tailerretan parte har dezaten. Lanean euskararen erabilera sustatzeko bi aldi dinamiko horiek Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzarekin eta Giza Baliabideen Zuzendaritzarekin (Erandioko Hizkuntza Normalizazioko Saila) batera kudeatzen dira.

KONTRATAZIO ETA AURREKONTU ARLOA

Kontratazio eta Aurrekontu Arloaren egitekoa da jarduera ekonomiko-finantzarioa eta beharrezko baliabide materialak eta zerbitzuak planifikatzea, kudeatzea, antolatzea eta gainbegiratzea, bai eta arloari atxikitako zerbitzuak ikuskatzea ere, guztia ere erakunde autonomoak bere jarduera garatu ahal izateko eta esleituta dauzkan helburuak lortzeko.

Kontratazio eta Aurrekontu Arloan, Akademiaren 2024rako funtzionamendu egokiari lotutako espedienteak eta kontratuak izapidetu dira.

Kontratazioa

Esleitutako espedienteak eta kontratuak (berriak)

- 08/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako fotokopiagailuak alokairu-araubidean eskuratzea (*rentinga*), erosteko aukerarik gabe.
- 12/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako hondakinak tratatzeko zerbitzua.
- 16/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako tiro-eremua material suntsikorrez hornitzea.
- 29/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako inprimagailuetarako papera eta kontsumigarri informatikoak eskuratzea.
- 7/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako Sorospen Zerbitzua.
- 13-1/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako Segurtasun Pribatuko Zerbitzua.
- 41/24 espedientea: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian bi galdara-gela (biomasa bidezkoak, *District Heating*) instalatzeko eta martxan jartzeko egokitzapen-obra, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsekin finantzatuta).
- Arrain freskoa hornitzeko esparru-akordiotik eratorritako kontratuak (02/21 espedientea, 2024ko aldia).

2025eko izapidetze aurreratuko espedientea

- 02/25 espedientea. Esparru-akordioa, enpresa lizitatzailerik bat edo batzuk hautatzeko prozedura ireki bidez eta zenbait esleipen-irizpideri jarraikiz, arrain freskoa unitate-prezioen arabera eta ondoz ondoko entregetan eskuratzeko, zeinak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren beharren mende egongo baitira, esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean.

Kudeaketa-lana eskatzen duten espediente handiagoak

- Suhiltzaileentzako entrenamendu-dorrea eraikitzekeo proiektua. (2. fasea)

Kontratuen luzapenak: (2024)

- Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistemako kidegoetako ontziak gobernatzeko gaikuntza-ikastaroa, ontziok itsas uretan gobernatzeko. (Hasierako espedientea: 34/23).
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Euskara Erabiltzeko Plana kudeatzeko laguntza teknikoko zerbitzua. (Hasierako espedientea: 33/23)
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren mantentze-zerbitzu integrala: (10-1/24 espedientea):
 1. sorta: Berogailuaren eta etxeko ur beroaren mantentze-lanak
 2. sorta: Instalazio elektrikoaren mantentze-lanak
 3. sorta: Ate automatikoen mantentze-lanak
 4. sorta: Igogailuen eta karga-jasogailuen mantentze-lanak
 6. sorta: Suteak detektatzeko eta itzaltzeko sistemaren mantentze-lanak
 8. sorta: Tiro-eremuetako mantentze-lanak
 9. sorta: Ur-instalazioen mantentze-lanak, eta analisi eta tratamenduak
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren mantentze-zerbitzu integrala: (30/24 espedientea):
 1. sorta: Xukatzeko ponpen mantentze-lanak
 2. sorta: Sukaldeko makinen mantentze-lanak
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako kontserbazio-, konponketa- eta mantentze-lanen zerbitzua (17-2/24 espedientea)
- Berdeguneen mantentze-zerbitzua (4-1/24 espedientea)
- Erregai-hornidura: Espedientea (3-1/24)

Beste espediente batzuk

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren dirulaguntza izenduna Gipuzkoako SuEskola Fundazioari, 2024an prestakuntza-ekintzak elkarrekin egiteko.

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen Zuzendaritza Nagusiaren arteko akordioa, Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente-kategorian sartzeko ikastaroetako ikasleei euskara-eskolak emateko eta Ertzaintzako lehen eta bigarren hizkuntza-eskakizunetan Hizkuntza Gaikuntzako Ikastaroak egiteko kudeaketa materialaren mandatuari buruzkoa.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren dirulaguntza izenduna elkarteari, Mugiarkaute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako sarbidea errazteko.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren dirulaguntza izenduna Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorriaren Batzordeari, larrialdien eta babes zibilaren arloan jarduteko.
- 200 kontratu txiki kudeatzea urteko mantentze-lanetarako, horniduretarako eta askotariko zerbitzutarako.

Zenbait

- Akademiaren jantoki-zerbitzua kudeatzea (Jantoki Arkaute).
- 298 ordainketa-gutun egitea.
- 1.204 faktura elektronikoko kudeatzea.
- Funtzio Publikoko Sailburuordetzarekin lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Jardunbide Egokiak Ikuskatzeko Zortzigarren Planari dagokionez (2021).
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin lankidetzan aritzea, 2023ko kontuak ikuskatzeko.
- Aurrekontu Orokorren Legean jasotako memoriak egitea:

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren memoria.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Programari dagokion memoria.

Datu ekonomikoen formularioa eta inbertsio-proiektuen justifikazioa.

Aurrekontu-programak genero-ikuspegi kontuan hartuta aztertze formularioa (P22-GEN) betetzeko lankidetzak.

Mantentze-lanak

Obra handiak eta proiektu garrantzitsuak:

- Gas naturalaren lurpeko hargune berri bat, 40.000 litroko C gasolio-depositu bat eta 8.500 litroko propano-depositu bat erretiratu, eta, haien ordez, gas naturalaren depositu bat jartzeko.

- Kontrol-sistema inplementatzea, gas naturaleko galdara-gelako eta sukalde-zerbitzuko obrari dagokion berokuntza-zerbitzua eta etxeke ur beroaren zerbitzua txertatuta.
- Egikaritze-proiektu tekniko bat egitea eta Euskal Energia Erakundearekin dirulaguntza kudeatzea, bi galdara-gelaren ordezt biomasainstalazio bat (*District Heating*) jartzeko.
- Maniobra-dorrearen eraikuntza burutzea eta obra amaitzea, Plan Bereziari eta Hirigintza Plan Orokorrari jarraikiz. Obraren harrera eta lehen erabilerako lizentzia.
- Zerbitzuak GWDOMO mantentze sare-berrian sartzea eta inplementatzea, ekipoak eta instalazioak Gateway telefonogune nagusiaren bidez monitorizatzeko, Modbus komunikazio protokoloa baliatuz.
- Jasangarritasun Batzordeak eta Talde Teknikoak hartutako neurriak ezartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Jasangarritasun Planaren jarraipena (efizientzia energetikoa, mugikortasuna eta ingurumen-kudeaketa).
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren sarbideak kontrolatzeko sistema gauzatzeko proiektu teknikoa.
- C gasoliorako IPo₃ instalazioa berrerabiltzea, eta, haren ordezt, IPo₄ instalazioa jartzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ibilgailuak gasolinaz hornitzeko.

Obra txikiak eta instalazioak hobetzeko eraberritzeak

- Hiru tiro-eremutako hondakinak kudeatzea eta bahetzea.
- Ur-ihesak eta -itoginak konpontzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zenbait eremutan.
- Defentsa- eta tiro-tekniketarako eraikineko estalkiak iragazgaiztea.
- Euri-uren erretena eta zorrotena egitea, eta 1. tiro-eremuan daudenak indartzea.
- Bide-marrak pintatzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zenbait eremutan.
- Estalkietako segurtasun-soka guztien mantentze-lan prebentiboa.
- Estalkietako asfaltozko oihalaren mantentze-lanak.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eraikinetan dilatazio-junturak konpontzea eta teila hautsiak ordeztzea.
- Ihesak detektatzea eta konpontzea.
- Tiro-eremuetan hormatxoak, zutabeak eta bala-geratzekoak egokitzea.
- Kontrol-erakunde baimenduaren eta Industria Sailaren ikuskapenak instalazio termikoetan eta gasolio- eta propano-biltegietan.
- Segurtasun Sailaren WLANa inplementatzea eta barneko bi pantaila eta kanpoko informazio-pantaila bat jartzea Harrera eraikinean.
- Azpizentralen kontrola areagotzeko obra egitea galdara-gela nagusian.

- Hormak eta habeak saneatzea galdara-gela nagusian.
- Bilera-gelaren banaketa berria eraikin nagusian.
- Gimnasioko lehen solairua eraberritzea, sindikatuentzako bi bulego gaitzeko.
- Igerilekua egokitzeko obraren lehen fasea.
- Euskarriak eta bastidoreak ordezteka tiro-makinetan.
- Ur hotzaren hodiak ordezteka sare orokorrean.
- Ate bat zabaltzea zuzendaritzako bulegoaren eta bilera-gelaren artean.

Instalazio elektrikoak eta kontrol domotikoa

- Akademiako domotika-sistemaren mantentze-lanak.
- Transformazio-zentroaren, behe-tentsioko gelaren, ekipo elektrogenoaren eta tximistorratzen urteko mantentze-lanak.
- Argiztapen- eta klimatizazio-sistema egunero gainbegiratzea.
- Energia elektrikoaren kontsumoekin lotutako mantentze-lanak eta etengabeko hobekuntza.
- Bizitza baliagarriaren arabera, barruko eta kanpoko argien ordezkari LED sistemakoak jartzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia osoan.
- Areta Nagusiko (frontoia) argiztapena aldatu eta lumen handiko 30 LED argi jartzea.
- Koadro elektrikoak beharren arabera egokitzea.
- Linea elektrikoak egokitzea lanpostuetan.
- Instalazio elektrikoak egiteko material elektrikoak eskuratzea, batez ere telefonoguneak, kontrolagailu-eragingailuak eta hargailuak.
- 500 panel fotovoltaikoren eta 66 termikoren mantentze-lanak.

Iturgintzako, berokuntzako, etxeko ur beroko eta aire girotuko instalazioak

- Eguneroko mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea galdara-geletan, tresneria termikoan, etxeko ur beroan eta aire girotuan.
- Datuak etxeko ur beroko kontagailuen arabera hartzea eta ur-sarearen hornidura.
- Erradiadore berriak ordezteka.
- Pixatokiak eta dutxak konpontzea.
- Hodiak libratzea.
- Ihesak detektatzea.

- Kafetegian ur-hargune berri bat gaitzea.
- Ikasgeletan tenperatura egunero kontrolatzea, domotika-sistemaren bidez.
- Etxeko ur berorako 66 panel termikoren mantentze-lanak.

Arotzeria

- Metalezko eta zurezko egituren, ateen, armairuen, sarrailen, armairuen eta abarren mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea.
- Sukaldeko orgetan gurpilak ordezte.
- Manparak, leihoak, pertsianak eta beirak konpontzea eta egokitzea.
- Neurria egindako osagaiak eta egiturak fabrikatzea tailerrean, Prestakuntza Alorreko irakasgaiek eskatuta.
- Zenbait armairu eta egituraren krokisak egitea, ondoren fabrikatu ahal izateko.
- Prestakuntza-geletan arbelak, mahaiak eta proiektoreak jartzea.

Igeltserotza-lana

- Estalkien, fatxaden eta egituren mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea.
- Pintura-lanak barnealdean zein kanpoaldean.
- Zoruak eta hormak egokitzea.
- Osagaiak soldatzea beharren arabera.
- Eraikinen estalkietako askak aldian-aldian mantentzea eta garbitzea.
- Sabai-leihoak ordezte.
- Lehendik dauden kutxatilak indartzea eta saneatzea.
- Pladurrezko trenkadak altxatzea.

Kirol-instalazioak

- Igerilekuak kontrolatzeko eguneroko jarraipena, datuak irakurtzea eta dosifikazioak.
- Gimnasioko makinaren mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea.

Kontratu txikiko espedienteen jarraipena

- Behe- eta goi-tentsioko lineak mantentzea.
- Urak banatzeko eta ihesak detektatzeko sarea, kontagailu orokorreko emaria erregistratuta.
- Ponpa hidraulikoak, elektrobabulak eta motor elektrikoak.
- Instalazio termikoak eta propano-deposituak.
- Domotika-sistema.
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sistema.
- Eraikin nagusiko erloju monumentala.
- Gortinak konpontzea eta egitea.
- Erreskate-elementuetarako eta altuerako praktiketarako segurtasun-sokak eta norbera babesteko ekipamenduak berrikustea eta ikuskatzea.
- Propano-galdarak mantentzea.
- Sukaldeko hodiak eta kanalizazioa mantentzea.
- Sukaldeko kea ateratzeko sistema garbitzea eta higienizatzea.
- Suteak itzaltzera bideratutako erretilu-erregailuaren mantentze- eta ikuskatze-lanak.
- Konpresoreen mantentze-lanak tiro-eremuan.

Kontratu handiko espedienteen jarraipena

- Mantentze-lan integralaren espedientea:
 - berokuntzaren, etxeko ur beroaren eta aire girotuaren mantentze-lanak.
 - Instalazio elektrikoaren mantentze-lanak.
 - Ate automatikoak.
 - Igogailuen eta karga-jasogailuen mantentze-lanak.
 - Xukatzeko ponpen, elektrobabulen eta motor elektrikoen mantentze-lanak.
 - Sua detektatzeko eta itzaltzeko instalazioak.
 - Sukaldean dauden egosteko, garbitzeko eta hozteko ekipoak.
 - Tiro-makinen mantentze-lanak.
 - Ur-instalazioen mantentze-lanak, eta analisi eta tratamenduak.
- Elikatze-iturri nagusietako hornidura- eta mantentze-lanak:

gasolioa, propanoa, elektrizitatea eta ura.

- Hondakinak biltzeko eta hodiak saneatzeko espedientearen jarraipena.
- Berdeguneen mantentze-lanak.
- Garbiketarekin lotutako mantentze-lanak.

Ekipamendua eta altzariak erostea

- Proiektore, kamera, bozgorailu eta monitore berriak eskatzea.
- Ikasleentzako armairuak eskatzea.
- Bulegoko mahaia, tiraderak, armairuak eta aulkiak eskatzea.
- Paperontzi laukoitzak erostea, Jasangarritasun Planeko neurriei jarraikiz.
- Aldageletarako bankuak erostea.

Zenbait

- Mantentze-lanen atalari loturiko material-inbentarioak egitea.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Autobabes Planaren jarraipena eta aplikazioa, Laneko Segurtasun eta Osasun Alorrak dioenari jarraikiz.
- Dokumentazioa suntsitzeko kudeaketa-lanak.
- Planoak interpretatzea AutoCADen.

Inprimategia

Datu aipagarriak:

Kontuan hartu behar da lan guztiek amaitzeko behar duten manipulazioa, bai aurretikoa, bai ondorengoa.

- Zuri-beltza: Kopia: 1.727.844. Digitalizazioa: 3.644.
- Kolorea: Kopia: 1.319.572. Digitalizazioa: 2.500. Eskanerra: 3.722.
- Deialdi bateratuko azterketak: 413.520.
- DIN A-3 orriak. Jarraibideak: 4.700.

- CIC azterketak: 9.082.
- HE azterketak: 18.895.
- Bide-segurtasuneko azterketak: 8.324.
- Akademiaren azterketak, askotarikoak: 51.087.
- Grapatutako sustapen-lanak: 1.418.853.
- Askotariko taloitegiak: 250.
- Kartelak: 1.681. Lanak: Gutun-azalak: 6.276. Bisita-txartelak: 450. Tututxoaz jositako liburuak: 1.778. Jositako liburuak, koloretakoak: 4.187. Jositako liburuak, zuri-beltzekoak: 4.869. Ikastaroen ziurtagiriak: 4.524. Diplomak: 3.360.
- Beste batzuk: Trafikoari buruzko informazio-orriak: 2.000. Eranskailuetarako papera, askotariko lanak: 100. Proba fisikoetarako dortsalak: 2.500. A-3 liburuxkak: 1.137. Triptikoak: 1.894. Bilera-liburua: 170. Liburu zuria: 973. Egutegiak: 15. Planoak: 10. Fotokopiak: 250. Telefono-zerrenda: 150. Azterketak identifikatzeko txartelak: 30. Txartel plastifikatuak: 250. Bertaratze-partea: 2.100. Txartel handiak: 16. Akademiako koadernoak: 140. Ikasleentzako koadernoak, espirala: 17. Eusko Jaurlaritzaren bloka: 173. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren agenda, A5: 61. Jarraibide-orriak: 3.072. "Itzulia 2024" motor-gidariaren dosierra: 101. Fitxa medikoak: 4.000.
- Askotarikoak: 131.975.

Ostalaritza

Datu aipagarriak:

- Otordu-zerbitzuak urriaren 17ra arte: 21.511.
- Ostalaritzako plantillak beste lan batzuk egiten ere lagundu die Akademiako gainerako kideei, hala nola aztertzaileentzako ogitartekoak egiten proba fisikoen garaian, edo VIP jantokian lunchak eta otordu bereziak prestatzen, PAREZ-PARE jardunaldietan parte hartzen duten adituentzat.

Biltegia

Jarduera nagusiak:

- Ertzaintzaren XXXII. promozioko jantziak kudeatzea, arropa banatzea barnean harturik.
- Judo-jantziak banatzea eta jasotzea baterako laugarren deialdiko ikasleentzat (Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen XXXII. Promozioa).

- Istiluen aurkako buzoetarako neurriak hartzea eta banatzea ordena publikoko praktiketarako, laugarren deialdi bateratuko ikasleentzat (Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen XXXII. Promozioa).
- Motozikleta gidatzeko eta bide-segurtasuneko ikastaroak eta azterketak egiteko materiala banatzea ikasleei.
- Motozikleta gidatzeko ikastaroetako ikasleei emandako arropa garbitzea eta materiala zaintzea.
- Ikastaroak amaitzean, ikasleek entregatutako materialak zaintzea: materialok jasotzea, zenbatzea, garbitegira bidaltzea, eta edukiontzietan neurrien arabera banatuta gordetzea. Beste horrenbeste egitea kaskoekin eta botekin, ondo antolatuta edukitzeko.
- Ofizialen materiala kontatzea, beti egon dadin soberakinik.
- Bulegoko materialaren sarrerak eta irteerak, eta Akademian zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei banatzea.
- Akademiako sail eta alorretan baliatzen diren bestelako materialen sarrerak eta irteerak, eta material hori banatzea, baita ikastaroak egiteko beharrezkoa dena ere.

Armak

Jarduera nagusiak

- Ertzaintzaren XXXII. promoziorako munizioa eta armak banatzea (419 ikasle):
 - Praktika pistolarekin: 670.000 kartutxo, 9 mm kalibrekoak, Non Tox blindatuak.
 - Praktika eskopetarekin: 3.400 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, 7 ½-ko perdigoiak; 4.200 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, posta; 10.500 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, Brenneke bala.
 - Praktika jaurtizailearekin: 2.460 kartutxo, 40 x 46 mm SIR kalibrekoak; 820 SIR x kartutxo, 40 x 46 mm kalibrekoak; jaurtigairik gabeko 250 kartutxo, 40 x 46 mm kalibrekoak; 3.690 kargatzeko hasarazle, 9 mm-koak; kartutxo horiek kargatzea, hainbat aldiz erabiltzeko.
 - Zuzkidura-armaren proba: promozioa ikasleei armak ematea eta jasotzea, ondo dabiltzala egiaztatzeko eta dokumentazioa behar bezala dagoela egiaztatzeko.
- Ertzaintza eta udaltzainak birziklatzea, eskoltatara sartzeko ikastaroa, brigada mugikorretara sartzeko ikastaroa, bitarteko poliziak egokitzeko ikastaroa, eta beste ikastaro batzuk (1.500 agente).
 - Praktika pistolarekin: 520.000 kartutxo, 9 m/m-ko kalibrekoak, Non Tox blindatuak.
 - Praktika eskopetarekin: 7.800 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, 7 ½-ko perdigoiak; 15.000 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, posta; 24.500 kartutxo, 12 x 70 kalibrekoak, Brenneke bala.

- Praktika jaurtitzailerekin: 900 kartutxo, 40 x 46 mm SIR kalibrekoak; 160 SIR x kartutxo, 40 x 46 mm kalibrekoak; jaurtigairik gabeko 200 kartutxo, 40 x 46 mm kalibrekoak; 5.000 kargatzeko hasarazle, 9 mm-koak; kartutxo horiek kargatzea, hainbat aldiz erabiltzeko.
- XXXII. promozioari dagozkion konponketak:
 - Akatsak edo hautsitako piezak zituzten 150 pistola konpondu dira.
 - Akatsak zeuzkaten 25 eskopeta konpondu dira
 - 10 pistola hautsita (txatar bihurtzeko)

 - Askotariko materialen gastuak kontrolatzea:
 - 30.000 euro tiro-praktikak egiteko materialetarako (zenbait modelo, hala nola plastikozko, paperezko eta kartoizko siluetak, dianetarako Styrodur panelak...).
 - Irakastera bideratutako armak kontrolatzea:
 - 270 pistola, ikasleek tiroa praktikatzeko.
 - 260 eskopeta, ikasleek eta ertzainek erabiliak.
 - 49 jaurtigailu, ikasleek eta ertzainek erabiliak.
 - 25 azpifusil, H&K MP-5 modelokoak.
 - 20 errebolber, zenbait modelo eta kalibretakoak.
 - 4 errifle, zenbait modelo eta kalibretakoak.
 - 65 eskopeta, Benelli enpresak konpontzeko.
 - 10 pistola hautsita (txatar bihurtzeko)

 - Armak berrikustea:
 - Akademiako 250 arma labur (aztertzea, haien egoera egiaztatzea, arma laburrok probatzea eta garbitzea).
 - Akademiako 55 arma luze (eskopetak aztertzea, eta egiaztatzea ondo funtzionatzen dutela eta garbi daudela).
 - Akatsak zeuzkaten 25 eskopeta konpondu dira
 - Akademiako 45 jaurtigailu (jaurtigailuak aztertzea, eta egiaztatzea ondo funtzionatzen dutela eta garbi daudela).
 - Akademiako 8 jaurtigailu aldi baterako konponduta, martxan jartzeko (kanoietako erretenak)

ANTOLAKETA ETA GARAPEN ARLOA

eLearning zerbitzua

Antolaketa eta Sistemen Arloa arduratzen da Akademiaren premia informatikoak asetzeaz, eta, horretarako, egin beharreko kudeaketak eta lanak egiten ditu, behar den guztia edukitzeko telekomunikazio, sare, sistema, ekipamendu, sarbide eta aplikazioei dagokienez. Era berean, laguntza eta aholkularitza ematen die arloei, ezarritako tresna berriak ikasteko eta haietan eguneratzeko, eta, era berean, soluzio informatikoak planteatzen ditu, automatizatu egiten baititu zenbait prozesu.

Nabarmentzekoa da Antolaketa eta Garapen Arloak koordinatuta lan egiten duela Segurtasun Saileko Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzarekin. Zuzendaritza horrek ematen die laguntza Akademiaren beharrei, Segurtasun Sailerako definitutako esparru teknologiko osoan, ez sistemei dagokienez bakarrik, baita teknologiari, hardwareari eta softwareari loturik ere.

Hona hemen arloak 2024an gauzaturiko jarduera nagusiak:

Hautaketa-prozesuetako probak: irakurketa optiko bidezko zuzenketa eta datuak mantentzea

Gure arloak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako hautaketa-prozesuetako probak zuzentzen parte hartzen du, irakurketa optikoaren bidez; hala, proba bakoitza parametrizatzen du, dagozkion irakurketak egiten ditu, eta datuak informatikoki kudeatzen ditu. Ondoren, emaitzak prestatzen ditu. Era berean, txostenak eta datuen estatistikak ere egiten ditu, bai eta zuzendutako proba bakoitzeko itemen txostenak ere.

Arlo hau arduratzen da, orobat, hautaketa-prozesuetako datu-baseak mantentzeaz.

Ertzaintzaren hautaketa-prozesuen kasuan, Informatika Arloa arduratzen da, halaber, hautaketa-prozesuaren eta ikastaroaren datuak dagokion arloari bidaltzeaz, informazio hori Segurtasun Sailaren ordenagailu zentralera irits dadin. Era berean, arrazoi judizialengatik gerta daitezkeen aldaketa guztiak mantentzeaz arduratzen da. Aurten, 12 hautaketa-prozesu egin dira guztira, zein bere ikastaroekin (4 postuz igotzeko, 4 oinarrikoak, eta beste 4 espezializaziokoak).

Aurten, Arloak 8 hautaketa-prozesu propioetako datuak zuzentzen eta interpretatzen parte hartu du. Era berean, udal batek eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen hautaketa-prozesu bateko probak diseinatu, aplikatu eta zuzendu ditu.

Hautaketa-prozesu mota	Guztira	Suhiltzaileak Araba eta Gipuzkoa	Udaltzaingoa	Ertzaintza	Udaltzaingoa Ertzaintza
Sarrera					
Prozesu bateratuarekin sartzea	2	1			1
Karguz igotzea	2		1	1	
Espezializazioa	3			3	
Udaltzaingoko laguntzaileak	1		1		
GUZTIRA	8	1	2	4	1

Guztira, 6 hautaketa-prozesutako 30 proba kudeatu dira:

Proba-mota	Proba-kopurua	Izangaiak
Ezagutzak	2	2.969
Gaitasunei dagokiena	20	3156
Nortasun orokorra	5	2941
Lan-nortasuna	3	2865
GUZTIRA	30	11931

Prestakuntza-ikastaroetako probak: irakurketa optiko bidezko zuzenketa

Arlo hau arduratzen da, halaber, Akademiak ematen dituen prestakuntza-ikastaroetako proba asko eta asko zuzentzeaz. Horretarako, irakurketa optikoa baliatzen du. Aurten, zehazki, 47 irakasgai-proba zuzendu dira, barnean harturik parametrizazioak, datuen tratamendua, irakurketak, itemen analisia eta emaitzak bidaltzea.

Gainera, irakurketa optikoa baliatuz zuzendu dira baterako 04. oinarrizko ikastaroko jarrerari buruzko balorazio-probak eta egoera soziolaboraleko test-probak —kasu horretan ere, barnean harturik parametrizazioa, zuzenketa eta emaitzak ematea—.

Proba-mota	Proba-kopurua	Ikasleak
Ikastaroko irakasgaia	46	2.741
Jarrerari buruzko balorazioa	1	410
Test soziolaborala	1	414
GUZTIRA	48	3565

Amaitzeko, aipatu behar da gure Arloa arduratzen dela proba guztietarako behar diren erantzun-orrien ereduak kudeatzeaz eta hornitzeaz, bai hautaketa-prozesuetakoak, bai ikastaroetakoak.

Ikastaroen gogobetetze-inkestak

Online egiten dira, Arkampus bidez. Plataforma horretan, dagokion inkestarekin prestatzen da ikastaroa, Prestakuntza Arloak ematen dizkigun galderak barnean hartuta, eta, ikasleen erantzunetatik abiatuta, gure arloak ikastaroaren txostena egiten du. Aurten 7 ikastarori buruzko txostenak prestatu eta sortu dira.

Mantentze-lanak, eguneratzeak, hobekuntzak, garapen informatikoak...

Kudeaketa Akademikoko aplikazioa

Aplikazio horrek Akademiaren prestakuntza-jarduerarekin lotutako alderdi guztiak kudeatzen ditu. Hantxe jasotzen dira ikastaroei, jardueri eta ikasleei buruzko datu guztiak.

Gure arloa arduratzen da aplikazio hori mantentzeaz, hobekuntzak eta behar berriak garatzeaz, sarbideak kontrolatzeaz eta erabiltzaileari laguntza emateaz.

Aurten, besteak beste, hobekuntza hauek egin dira:

- “Kontsultak eta zerrendak” leihoa hobetzeko prozesuari ekin zaio. Horri esker, aplikazioaren datuak behar diren moduan landu ahal izango dira; izan ere, datuak atera eta nahi bezala landu ahal izango dira (iragazkiak eginda, zutabeak gehituta...).
- Operadore bat sortu da aplikazio osoan, askotariko fitxategiekin lan egin ahal izateko (IZPa, NANA, ikastaroa, abizenak...), eta, besteak beste, aukera izango da modu masiboan alta emateko, datuak aldatzeko...
- Programa bat egin da kalkulu berriak egiteko.
- Garatzen. Ikastaro guztiak bateratu eta zentralizatu dira. Orain arte, bi eratako ikastaroak bereizten ziren: “egituradunak” eta “egiturarik gabeak”. Bereizketa horrek arazoak sortzen zituen ikasle bakoitzak egindako ikastaroei buruzko kontsultak egitean, kontsultak eta zerrendak erabiltzean, curriculum sortzean...
- Garatzen. “Taula historikoak” ezabatzen ari dira. Sistema zaharrak bi kontzepturen arabera bereizten zituen matrikula-taulak, ikasleak, suspentsoak... Alegia: historikoak eta egungoak. Gaur egun, beharrezkoa da bateratzea, beste sistema batzuekin sinkronizatzeko eta integratzeko arauak bete daitezten. Horiek ere aztertu eta baliozkotu egin behar dira.
- Garatzen. Leihoak sortu edo aldatu dira, sinkronizaturik jardun ahal izateko Arkampusekin eta “GA-WEB” proiektuarekin (gure webgunetik izena ematea), eta parametrizatu egin dira zenbait aukeratarako.
- Garatzen. Integrazio-arauak sortu dira Arkampusekin eta GA-WEB proiektuarekin integratzeko.

Arkampus, Akademiaren onlineko irakaskuntza-plataforma

- Moodle plataforman autentifikazio bikoitzeko faktore bat nola inplementatu aztertu da. Plataforma bertsio berri batekin eguneratuko da, funtzionalitate hori datozen hilabeteetan integratzeko.
- ZOOM bideokonferentzia-sistemaren bertsioa eguneratzea.

Ikastaroak eskualdatzeko lanak automatizatzea

Ertzaintzaren Giza Baliabideekin harremanetan jartzea, Akademian egindako ikastaroen eskualdaketa automatizatzea lortzeko, eta, hala, Ertzaintzaren curriculum-egiturara egokitzeko.

Zenbait

- Test soziolaborala zuzentzeko programa hobetzea.
- Igeriketa-proben programa prestatzea eta egokitzea.
- Ikasturte bakoitzeko ikasleen txostena eta orduak prestatzea.
- Hautaketa-prozesuetako eta ikastaroetako zuzenketei buruzko artxibo digitalizatuak sortzea.
- Erabiltzailearen beharrei erantzuteko programak eta tresnak erabiltzeko azterketa eta laguntza.
- Irakasgaiak zuzentzeko kudeaketa-prozedurak hobetzea eta egokitzea, eta emaitzak ematea.
- Estatistikekin lotutako hobekuntzak, tratatu beharreko datuak antolatzeko aukerarekin.

Beste aplikazio eta programa batzuk kudeatzea

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren deialdiak

Saileko Intranetetik sartzen da (Gurenet). Ertzaintzaren aplikazio horren bidez ematen da izena, bai Akademiak deitutako hautaketa-prozesuetan, bai hizkuntza-eskakizunen deialdietan.

Gure arloa arduratzen da deialdietarako aplikazioa prestatzeaz eta eskaerak kudeatzeaz. Jarraian, aurtengoak laburbiltzen dira:

- Ofizialetera igotzeko ikastarorako hautaketa-prozesua: 972 eskaera
- Esku hartzeko espezializazio-ikastarorako hautaketa-prozesua: 251 eskaera
- Bizkartzainetarako espezializatzeko ikastarorako hautaketa-prozesua: 323 eskaera
- Ikerketa kriminaleko espezializazio-ikastarorako hautaketa-prozesua: 374
- Hizkuntza-eskakizuna (deialdi 1): 1.374 eskaera (C2 maila: 169; C1 maila: 924; B2 maila 178; B1 maila 103).

Ikastaroetan izena ematea (PAREZ-PARE)

Herritarrentzat irekita dauden ikastaroetan izena emateko web-aplikazio bat da. Gure webgunetik sartzen da, eta Prestakuntza Arloak kudeatzen du. Baina Informatika Arloak gorabeherei eta zalantzei erantzuten die, edo hark egiten ditu egin beharreko probak, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko. Aplikazio hori "GA-WEB" proiektuak xurgatuko du laster.

Ondasun inbentariagarriak kontrolatzea: GLPI aplikazioa

Web-aplikazio hori Segurtasun Sailaren intranetean dago instalatuta, eta Akademiaren ondasun inbentariagarriak kudeatzea da haren xedea. Biltegi bat baino gehiago ditu, Akademiaren antolaketari jarraikiz. Gure arloak inbentarioan jaso daitekeen material informatiko guztiaren kontrola egiten du: material horri alta ematea, egindako mugimendu guztiak erregistratzea, informazio egokia bilatzea (sistema eragileak, aplikazio bereziak, lizentziak)... Gure arloa arduratzen da, orobat, biltegiei laguntza emateaz eta sortzen diren behar berriei erantzuteaz.

Hautaketa-prozesuetako destinoak eta ikastaroak esleitzea

Aurten, arlo honek destinoak esleitzeko 2 prozesu egin ditu, programa-deialdiaren oinarrietako eta/edo ebazpenetako eskakizunetara egokituta:

- Sartzeko hautaketa-prozesua – lanpostuen baterako esleipena, 04 Ertzaintza/Udaltzaingoa.
- Sartzeko hautaketa-prozesua – destinoen baterako esleipena, 01 Suhiltzaileak.

Akademiaren webgunean kudeatzea

Arlo hau arduratzen da Akademiaren webgunearen egitura mantentzeaz eta euskarri teknikoa eskaintzeaz. Informatika Arloak eta webgunearen arduradunak kudeatzen eta gainbegiratzen dute argitaratzen denaren antolaketa eta itxura. Administratzaile gisa, oinarrizko erabiltzaileak eskura ez dituen eduki bereziak ere argitaratzen dira (bannerrak, orria eta azpiorriak).

Telekomunikazioak eta sistemak kudeatzea

Telekomunikazio- eta sare-azpiegitura

Arlo hau arduratzen da telekomunikazio- eta sare-azpiegiturari buruzko gaiei buruz informatzeaz eta kudeatzeaz, eta, hala, Akademian sortzen diren beharrei erantzuten die.

Ekipamendu informatikoa (ekipoak berritzea) eta lizentziak kudeatzea

Gure arloa arduratu da ekipamendu informatikoa eta telefonoak hornitzeko, instalatzeko, ordeztzeko eta lekualdatzeko eskaerei erantzuteaz. Horretaz gainera, mugimendu guztien berri eman du, GLPI inbentarioek eskatzen dutenari jarraikiz.

Gainera, ekipoen ezaugarriak ez ezik, erabiltzaileen ordenagailuei dagozkien konfigurazioak ere kontrolatu ditu. Programak eguneratu eta instalatu ditu ekipoetan, eta Akademiak jada badauzkan edo behar dituen lizentziak kudeatu ditu.

Gaur egun, Akademiako mahaigaineko ordenagailu eta eramangarri guztiak berritzen ari gara, eta gure arloa ari da arduratzen berrikuntza hori planifikatzeaz eta kudeatzeaz (600 ordenagailu inguru guztira).

Erabiltzaileen sarbidea kudeatzea

Akademiako langileen eta ikasleen sareko erabiltzaileen alta- eta baja-eskaerei erantzun die, eta dagozkien sarbide eta baimen informatikoak kudeatu ditu. Sarbideak zuzen daudela bermatzeko, datuak lanpostuen arabera biltzeko lanean ari gara, eta, horretarako, hainbat informazio ari gara jasotzen, hala nola aplikazioak, Interneteko baimenak, postontzi elektronikoak, karpetak eta abar.

Era berean, Akademiako langileen eta ikasleen sareko pasahitzekin loturiko gorabeherak kudeatu dira, eta askotariko eskaerei erantzun zaie, hala nola postontzi funtzionalak, sarbideak, sareko espazioa areagotzea...

Informatika Arloak kudeatzen eta kontrolatzen ditu, halaber, Eusko Jaurlaritzaren sareari dagozkion ekipoak eta sarbideak. Gaur egun, Akademiak 21 ekipo ditu sare horretara konektatuta.

Erabiltzailearentzako euskarri informatikoa

ARRETA zerbitzuaren bidez (Segurtasun Sailaren erabiltzaileentzako laguntza), erabiltzaileek izaniko askotariko gorabeherari erantzun zaie (hala nola sareko gakoarekin lotutakoak, edo hardwarearekin, softwarearekin eta sarera konektatzearekin izandako arazoak...), bai langileen ordenagailuetakoak, bai ikasle eta irakasleen ordenagailuetan izandakoak. Hala, gure arloak egin du horien guztien jarraipena. Guztira, 1.128 gorabehera izan dira.

Arazoak eta egoera kritikoak saihesteko, aurten ekintza-plan prebentibo bat ezarri da ikasgeletan instalatutako ekipoetarako (irakasleenak zein ikasleenak).

ZERBINET bidez egindako eskaera informatikoak

Gure arloa arduratu da eskaera informatiko guztiak Zerbinet bidez egiteaz, bai eta haien jarraipenaz ere.

- Erabiltzaileek 146 sarbide eta eskaera egin dituzte.
- Komunikazio-hornidurekin loturik, 13 eskaera izan dira.
- Hornidura informatikoei dagokienez, berriz, 82.

Proiektuak

PROIEKTUAREN JARRAIPENA: “Kudeaketa Akademikoko aplikazioak kanpoko erabiltzaileekin izaniko interakzioa” (*prestakuntza-eskaintza, izena ematea eta kontsultak Akademiaren webgunetik*) (GA-WEB)

Proiektu honen helburua da Akademiaren webgunearen bidez eskaintzea prestakuntza-ikastaroak, izen-emateak eta kontsultak. Ikasleekin eta lankide ditugun erakundeekin modu seguruan komunikatuko gaituen WEB atari bat eskaini nahi da, web-aplikazio baten bidez.

Lehen aipatu dugun bezala, Akademiak badu Kudeaketa Akademikoko aplikazio bat, bere prestakuntza-jarduerarekin lotutako alderdi guztiak kudeatzeko. Haren bidez, prestakuntza-jarduerei buruzko informazioa ematen da, txandak ezartzen eta baliabideak esleitzen dira... Alabaina, ez du funtzionaltasun egokirik prestakuntza-jarduera horien hartzaileekin interakzioan jarduteko —esate baterako, izena eman dutenekin eta jardueraren xede-erakundeetako ikasleekin—. Prozesu hori modernizatzeko, aplikazio berri bat sortzen ari gara, zeina Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren atarian argitaratuko baita. Hari esker, prestakuntza-jarduerak argitaratu ahal izango dira eta haietan izena eman ahalko da; horretaz gainera, parte-hartzaileak kudeatzeko eta emaitzak argitaratzeko aukera eskainiko du, guztia ere egungo Kudeaketa Akademikoko aplikazioarekin integratuta.

Proiektu honek garapenak eskatu ditu, bai Kudeaketa Akademikoko aplikazioari dagokionez, bai web-aplikazioari dagokionez. Gure arloak egin ditu Kudeaketa Akademikoko aplikazioaren garapenak, eta web-aplikazioari dagozkionak, berriz, Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzaren garapen-arloak gidaturiko enpresa adjudikaziodunak (Erandio). Proiektu hori gehiegi ari da luzatzen denboran, batez ere web-aplikazioaren atzerapenagatik. Une honetan, azken zatia dago egin gabe, hau da, ibilbide osoa probatzea eta baliozkotzea, kasuistikak

kontuan hartuta eta barnean harturik erabiltzaileen eta erregistratzaileen identifikazioa, sinadura elektronikoa eta jakinarazpenak. Gure arloak, besteak beste, proiektuaren aurrerabideak izaniko jarraipena egin du, eta, ildo horretan, gidioak eta planak proposatu eta datu-sortak eman ditu, dagozkion probak errazteko.

PROIEKTUAREN JARRAIPENA: “Arkampus (Moodle) Kudeaketa Akademikoko aplikazioarekin integratzea”

Sinkronizazioaren bidez, Arkampuseko ikastaroen kudeaketa administratibo guztia Kudeaketa Akademikoko aplikazioaren bidez egingo da aurrerantzean. Ikastaroen edukiaren kudeaketa eta konfigurazioak Arkampus bidez egingo dira aurrerantzean ere. Arkampus eta Kudeaketa Akademikoko aplikazioa integratzeak alderdi hauek biltzen ditu:

- Ikastaroak sinkronizatzea. Arkampusen kudeaketa akademikoko ikastaroak direnak jarduera gisa definitu dira. Kudeaketa Akademikoko aplikazioko ikastaro batek jarduera bat baino gehiago izan ditzake (ikastaroak Arkampusen).
- Erabiltzaileak sinkronizatzea. Arkampusen matrikulatuko diren ikasle eta irakasle guztiak automatikoki sinkronizatzen dira plataformarekin.
- Matrikulak sinkronizatzea. Arkampuseko matrikulazioak Kudeaketa Akademikoa aplikazioan definitutako ikastaroko matrikulazioekin lotuta daude. Ikasle edo irakasle baten egoeran izaniko edozein aldaketa automatikoki islatzen da Arkampuseko ikastaroan (bajak, itxierak...).
- Jakinarazpenak sinkronizatzea. Plugin bat garatu da Kudeaketa Akademikoko aplikazioak Arkampusekin lotutako jakinarazpenak bidali ahal izateko: ikastaroan matrikulatzea, ikastaroan baja ematea, ikastaroaren itxiera eta abar.

Aurten, sinkronizazio osoa sakonean probatzeko lan egin da, ager daitezkeen akatsak detektatzeko eta konpontzeko. Horretaz gainera, sinkronizazio guztiak exekutatzeko lortzen duen *script* bat landu da —sinkronizaziook beharrezkoak direnean—, eta ez aldizka, orain arte probatzen ari ziren bezala. Moodleko *cron*ak exekutatzeko duen *script* horri esker, behar ez diren exekuzioak saihestea lortzen dugu, eta sinkronizatu beharreko zerbait dagoenean bakarrik sinkronizatzea.

Informatika Arloak garatu du gai horri loturik egin den proba-sorta. Komenigarria da azken erabiltzaileek baliozkotzea proba-sorta hori —kasu honetan, Prestakuntza Arlokoek—. Horrenbestez, eskuliburu bat prestatu da egin beharreko probekin eta azalpenekin; arlo horri jakinarazteko eta harekin batera lantzeko.

HASIERA: Kudeaketa Akademikoko aplikaziora migratzea, “Migratzeko analisia, diseinua eta prototipoa”

Kudeaketa Akademikoko aplikazioaren migrazio-aukerak aztertu, baloratu eta kontsultatu ondoren, urte-hasieran erabaki zen Eusko Jaurlaritzaren teknologia estandarrak erabiliz garatzea aplikazio berria, eta, aldi berean, enkargu bat egitea EJI Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteari, egokiro kudeatzeko.

Fidagarritasun handiagoz aurrera egiteko, bi fasetan ekitea erabaki zen. Lehenik eta behin, tresna berri baten analisia, diseinua eta prototipoa egingo da: eutsi egingo zaie indarrean dauden funtzionaltasunei, eta hobetu egingo dira Kudeaketa Akademikoko aplikazioaren egungo arkitektura, operatiba eta funtzioak. Ondoren, produktuaren azken garapena eta eraikuntza etorriko dira.

Hori horrela, aurten lehen zatia kontratatzeko enkargua egin zaio EJI Eri, eta harekin elkarlanean aritu gara baldintza teknikoen agiria ahalik eta gehien egokitzeko. Horretarako, eskakizunen analisia eta modulu funtzionalen laburpena jasotzen dituen dokumentazioa eman zaie. Une honetan, enpresa adjudikaziodunarekin ari gara lanean, eta bilerak egiten ari gara aplikazioa erakusteko eta azaltzeko. Era berean, aplikazioa erabiltzen duten Akademiako arloekin bilerak egiten ari gara, behar berriak, aldaketak edo hobekuntzak txertatzeko.

eLearning zerbitzuak (Arkampus)

2024an, azken taulan jasotzen diren ikastaroak eman dira Arkampusen. Ikastaro horiek Arkampusen emateko, beharrezkoa da zenbait lan aurretik egitea. Lehenik eta behin, ikastaroa sortu behar da: dela hutsik, dela aurreko ikasturte batetik kopiatutako edukiarekin. Oro har, trebatzaileak matrikulatzen dira ondoren, ikastaroaren edukia igo dezaten. Jarraian, jarduerak eta baliabideak konfiguratu dira, ikastaroak ebaluazioa edo jarraipena behar duen kontuan hartuta. Ebaluazioaren bat behar den kasuetan, ondo konfiguratu behar da ikastaroa, amaitu ondoren txostena behar bezala esportatu ahal izateko, eta, azkenik, Kudeaketa Akademikoko aplikazioan kargatzeko. Ondoren, ikasleak matrikulatzen dira, eta jakinarazpena helarazten zaie sartu ahal izateko. Ikasturtean zehar, mantentze-lanak egiten dira, bai erabiltzaileekin loturik (bajak, desmatrikulazioak, helbide elektronikoak aldatzea...), bai ikastaroekin loturik (konfigurazioak aldatzea, txostenak sortzea...). Ikastaroak emateaz aparte, zenbait gairi edo ikastarori buruzko azterketak ere egin dira: gidatzea eta boluntariora-ikastaroaren fase teorikoaren azterketa.

“BABESKOPIAK”: aurreko urteetako ikastaroak kendu egin dira Arkampusetik, aldeztu aurretik babeskopia bat egin ondotik.

ERABILTZAILAREN EUSKARRIA: Plataformaren erabiltzaileei ARKAMPUSEN Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzuaren bidez erantzun zaie.

FUNTZIONALITATE DESBERDINEKO IKASTAROAK: Akademiaren premiei erantzuteko, "ikastaro" hauek ezarri dira:

- "IZEN-EMATEEN KUDEAKETA" (9 ikastaro): helburua da Udaltzaingoko kolektiboentzako aurrez aurreko ikastaroetako plazak kudeatzea.
- "DESTINO-ESKAERA" (04 baterakoa eta Suhiltzaileekin baterakoa): suhiltzaile guztiek batera egiten duten destino-eskaera kudeatzeko balio du.
- "INKESTAK" (7 ikastaro): ikasleen gogobetetze-inkestak sortu dira ikastaroetarako.

IKASTAROEN TAULAK

SARRERA			
1. kategoria	2. kategoria	3. kategoria	Arkampus ikastaroak
Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako oinarritzko eskalako agentea	4. deialdi bateratua	Herritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa	17 ikastaro (moduluak Kudeaketa Akademikoko aplikazioan)
		Bide-segurtasuneko espezialitatea	18 ikastaro (moduluak Kudeaketa Akademikoan)
		Ikerketa kriminaleko espezialitatea	23 ikastaro (moduluak Kudeaketa Akademikoan)
	Udaltzaingoa egonkortzeko ezohiko prozesuak		13 ikastaro (moduluak Kudeaketa Akademikoan)
Euskadiko babes zibileko boluntarioak			Fase teorikoa: Euskadiko Babes Zibileko Boluntarioetan Sartzeko Oinarritzko Prestakuntza Ikastaroa (06 txanda)
			Fase teorikoko azterketa: Euskadiko Babes Zibileko boluntario-ikastaroa (06 txanda)
			Fase praktikoa: Euskadiko Babes Zibileko Boluntarioetan Sartzeko Oinarritzko Prestakuntza Ikastaroa (06 txanda)
Euskal Autonomia Erkidegoko suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako suhiltzailea			Arabak eta Gipuzkoak batera eginiko deialdia

EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA
Arkampus ikastaroak
Udaltzaingoko bitarteko agenteen prestakuntza-ikastaroa
Jokabide suizidak prebenitzea eta halakoetan esku-hartzea
SOS Deiak–Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko kudeatzaile operadoreentzako prestakuntza-ikastaroa (1. txanda)
SOS Deiak–Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko kudeatzaile operadoreentzako prestakuntza-ikastaroa (2. txanda)
Suteak Itzaltzeko A zuzendari teknikoa
Udaltzaingoko laguntzaileen poltsa (epaia)

IBILBIDE PROFESIONALA	
Arkampus ikastaroak	
Bulegotika	Word oinarrizkoa
	Word bitartekoa
	Excel oinarrizkoa
	Excel bitartekoa
	Access oinarrizkoa
	Acces bitartekoa
Ingelesa	13 maila (A1-1, A1-2, A2-1, A2-2, B1-1, B1-2, B1-3, B2-1, B2-2, B2-3, C1-1, C1-2 eta C1-3)
Beste batzuk	Delituari beldur izatea: erregistratutako delituak eta ezkutuko biktimizazioa. Zer dio kriminologiak? (2024)
	Emakumeen eta gizonen berdintasuna (2024)
	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (2024)
	Euskara lanabes (Karrera profesionala 2024)
	Nire euskara hobetzen (Karrera profesionala 2024)
	Eguneratze juridikoa

AZTERKETA ETA PLANGINTZA ALORRA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko polizia osatzen duten kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatzea, antolatzea eta garatzea, eta hari dagokio, orobat, EAEko poliziako kideak espezializatzeko eta haiei etengabeko trebakuntza emateko saioak antolatzea eta garatzea.

Era berean, hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu, Ertzaintzako kideak euskalduntzeko.

Larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko arloari dagokionez, Akademiaren eginkizuna da prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatzea, antolatzea eta garatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen mendeko larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko euskal sistemako funtsezko edo oinarritzko zerbitzuetako langile gisa sartu aurretik, eta, zehazki, legez edo erregelamenduz ezartzen direnak.

Era berean, Akademiari dagokio larrialdien eta babes zibilaren arloko prestakuntza-ekintzak planifikatzea, programatzea, antolatzea eta ematea, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemari zuzenean edo zeharka esku hartzen duten profesional eta langile guztientzat, izan enplegatu publikoak, izan erakunde pribatuetakoak edo boluntarioak.

DATU OROKORRAK: orotara, 926.643 prestakuntza-ordu eman dira.

MATRIKULAK	GIZONAK	%	EMAKUMEAK	%	GUZTIRA
	8.480	80,68	2.031	19,32	10.511

MATRIKULAK	GIZONAK	%	EMAKUMEAK	%	GUZTIRA
ERTZAINZA	5.137	79,45	1.329	20,55	6.466
UDALTZAINGOA	1.735	75,37	567	24,63	2.302
LARRIALDIAK	1.480	95,18	75	04,82	1.555
BESTE KOLEKTIBO BATZUK	128	68,09	60	31,91	188

PRESTAKUNTZA-JARDUERA

Ertzaintza. SARRERA

IKASTAROA	EDIZIO-ZK. / EDIZIOAREN ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
XXXII. PROMOZIOA	1 / 1150	123	83	MAIATZA	2025	ERDIPRESENTZIALA

Ertzaintza. ESPEZIALIZAZIOA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.- ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA: LEHERKARIAK DESAKTIBATZEA ETA ARRISKU NUKLEARRA, ERRADIOLOGIKOA, BIOLOGIKOA ETA KIMIKOA	1 / 854	10	--	2023KO IRAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
BRIGADA MUGIKORRA	2 / 339,15	57	3	URTARRILA	MAIATZA	PRESENTZIALA
BIDE-SEGURTASUNA	1 / 276	16	--	URTARRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
IKERKETA KRIMINALEKO IKASTAROA	1 / 320,50	38	60	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
NORBERA BABESTEKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA	2 / 360	34	2	IRAILA	ABENDUA	PRESENTZIALA

Ertzaintza. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
ERREPIDE-GARRAIOA KONTROLATZEA - MIÑOIEN SEKZIOA	5 / 60	48	7	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
ERTZAINZAREN MIÑOIEN ATALA KOORDINATZEKO ZENTROKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA	7 / 30	8	2	URTARRILA	URRIA	PRESENTZIALA
ESKOPETAZ TIRO EGITEKO TEKNIKAK	17 / 2,50	327	48	URTARRILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
BOLA-JAURTIGAILUAK ERABILTZEKO TEKNIKAK	17 / 3	339	50	URTARRILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
POLIZIA-MAKILA HEDAGARRIA ERABILTZEKO TEKNIKAK	1 / 18	4	2	URTARRILA	URTARRILA	PRESENTZIALA
PISTOLAZ TIRO EGITEKO TEKNIKAK ETA TAKTIKAK	52 / 12	695	95	URTARRILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
ERTZAINZAREN HELIKOPTERO-OPERADOREAREN POSTURA EGOKITZEKO IKASTAROA	2 / 400	4	--	URTARRILA	EKAINA	PRESENTZIALA
MENDIKO ZAINZA ETA ERRESKATEA, II. MAILA	1 / 245	11	2	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
GERTAKARI KRITIKOETARAKO POLIZIA-PROZEDURAK	17 / 30	129	24	URTARRILA	UZTAILA	PRESENTZIALA
INGELES TEKNIKOA	1 / 20	1	--	URTARRILA	MAIATZA	ERDIPRESENTZIALA
POLIZIAREN DEFENTSA PERTSONALA	16 / 12	136	34	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
INTELIGENTZIARI BURUZKO OINARRIZKO IKASTAROA	1 / 30	27	6	URTARRILA	URTARRILA	PRESENTZIALA
ERREPIDEKO MOTOZIKLETAK GIDATZEA, 1. MAILA	1 / 66	4	1	URTARRILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA BIDE-SEGURTASUNAREN ARLOAN	1 / 16	17	4	URTARRILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
ERREPIDEKO MOTOZIKLETAK GIDATZEA, 0. MAILA	1 / 114	3	2	URTARRILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
HURBILTZAILEA	1 / 40	4	1	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
ZIBERKRIMINALITATE-IKERKETAKO IKASTAROA	2 / 30	39	8	OTSAILA	EKAINA	PRESENTZIALA

BEGI-IKUSKAPENEI ETA LOTUTAKO GAIEI BURUZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 375	1	1	OTSAILA	URRIA	PRESENTZIALA
MBIS: PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 200	2	--	OTSAILA	UZTAILA	PRESENTZIALA
OINETAKO-AZTARNAK IKERTZEKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 225	1	--	OTSAILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
DOKUMENTOSKOPIA ETA GRAFISTIKA: PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 950	1	2	OTSAILA	2025EKO URTARRILA	PRESENTZIALA
KALITATE-TEKNIKARI IZATEKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 516	2	--	OTSAILA	EKAINA	PRESENTZIALA
KOORDINAZIO ZIENTIFIKOAREN ATALERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 300	2	--	OTSAILA	APIRILA	PRESENTZIALA
EUSKARRI OPERADOREENTZAKO OINARRIZKO-PRESTAKUNTZA	9 / 90	126	80	OTSAILA	AZAROA	PRESENTZIALA
OINARRIZKO BIZI-EUSKARRI INSTRUMENTALIZATUA ETA BESTE LARRIALDI-EGOERA BATZUETAN JARDUTEA	15 / 11	107	24	OTSAILA	UZTAILA	PRESENTZIALA
INTELIGENTZIA-AZTERKETA I	1 / 48	18	7	OTSAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
KONTROLERAKO GAILU ELEKTRONIKOAREN INSTRUKTORE IKASTAROA	1 / 30	2	--	OTSAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
LANDA-KRIMINALISTIKAKO OINARRIZKO IKASTAROA	1 / 30	11	5	OTSAILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
ETXEKO ETA GENERO INDARKERIAREN ESPEDIENTEA ETA POSTONTZIA, ARRISKUAREN BALORAZIOA	10 / 3	105	18	OTSAILA	EKAINA	PRESENTZIALA
ZIBERKRIMINALITATE-SALAKETAK JASOTZEA	6 / 5	40	25	MARTXOA	EKAINA	PRESENTZIALA
ERTZAINZAREN ONTZIAK GOBERNATZEKO GAIKUNTZA	1 / 82	15	--	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA
OPERADOREEN PRESTAKUNTZA: XIZPIEN EKIPOAK DITUZTEN ERRADIOGRAFIA INDUSTRIALEKO INSTALAZIOAK	1 / 37	11	--	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA
KONTROL-GAILU ELEKTRONIKOA ETA TASER 7 OPERADORE IKASTAROA	1 / 12	3	--	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA
TXAKUR-GIDARIAK. BILAKETAK ETA SALBAMENDUAK ERRESKATE-TXAKURREKIN EGITEKO TREBATZEA. 4. MODULUA. LARRIALDIEI ERANTZUTEA. 4.2 AZPIMODULUA. ERRESKATEA ETA SALBAMENDUA	2 / 56	2	1	MARTXOA	APIRILA	PRESENTZIALA

IBILGAILUAK IREKITZEA ETA AUTOMOBILAREN SISTEMA ELEKTRONIKO BERRIAK	1 / 16	8	--	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA
ESPETXE-ZUZENBIDERAKO HASTAPENAK	5 / 5	120	20	MARTXOA	MAIATZA	PRESENTZIALA
OINARRIZKO ESKALARAKO PREBENTZIO-PROGRAMA: INPAKTU EMOZIONAL HANDIKO ESTRES-EGOEREI AURRE EGITEA ETA JOKABIDE SUIZIDA PREBENITZEA	20 / 4	218	73	APIRILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
TRAUMA OSTEKO ESTRESA PREBENITZEKO PROGRAMA PSIKOHEZITZAILEA	19 / 4	97	23	APIRILA	AZAROA	PRESENTZIALA
INGELESA	1 / 30	71	22	MAIATZA	UZTAILA	ONLINE
ATARIAK ETA ETXEBIZITZAK MODU EZ-SUNTSITZAILEAN, ESTALIAN ETA BIZKORREAN IREKITZEA	1 / 28	5	--	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
IREKIERAK	1 / 120	5		MAIATZA	EKAINA	PRESENTZIALA
GIZA INFORMAZIO-ITURRIEN TRATAMENDUA	1 / 112	18	4	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
AMILDEGI ETA UR BIZIETAKO PROGRESIOA, ERRESKATEA ETA TEKNIFIKAZIOA	6 / 60	43	2	MAIATZA	ABENDUA	PRESENTZIALA
KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ PREBENITZEA - BIDE-HEZKUNTZA	1 / 30	6	6	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
TXAKUR-GIDARIAK EGITURA KOLAPSATUETAKO ESPEZIALISTA	2 / 56	--	1	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
JARRAIPEN- ETA KONTRAZAINZA-TEKNIKAK	1 / 120	8	3	EKAINA	EKAINA	PRESENTZIALA
GIZA SALEROSKETAREN, PROSTITUZIO HERTSATZAILEAREN ETA ADINGABEEN USTELKERIAREN AURKAKO POLIZIA-LANA	4 / 5	78	56	EKAINA	URRIA	PRESENTZIALA
DROGEN ERAGINPEAN DAUDEN GIDARIAK DETEKTATZEA	4 / 6	56	7	EKAINA	IRAILA	PRESENTZIALA
GORJA-SARRAILETAN ESPEZIALIZATUTAKO IKASTAROA	1 / 20	2	--	EKAINA	EKAINA	PRESENTZIALA
TASER MAISU-INSTRUKTOREA	1 / 40	6	--	UZTAILA	UZTAILA	PRESENTZIALA
ESPETXERATUAK ETA ASKATASUNAZ GABETUTAKO ADINGABEAK LEKUALDATZEA ETA ZAINZEA	18 / 6	417	38	IRAILA	ABENDUA	PRESENTZIALA

ESZENA ZIRRARAGARRIETATIK PSIKOLOGIKOKI BABESTEKO PREBENTZIO-PROGRAMA	4 / 2	39	15	IRAILA	URRIA	PRESENTZIALA
ESZENA ZIRRARAGARRIETATIK PSIKOLOGIKOKI BABESTEKO PREBENTZIO-PROGRAMAGUIAS CANINOS	1 / 4	9	2	IRAILA	IRAILA	PRESENTZIALA
KALIGRAFIA JUDIZIALEKO ETA DOKUMENTOSKOPIAKO UNIBERTSITATEKO ADITU-IKASTAROA	1 / 525	--	2	IRAILA	2025EKO OTSAILA	ONLINE
AUZITEGIKO IRUDI ETA BIDEOEN HASTAPENEI BURUZKO IKASTAROA. IRUDIAK ETA BIDEOAK PROZESATZEA	1 / 20	2	1	IRAILA	IRAILA	PRESENTZIALA
KOLAPSATUTAKO EGITURETAN SALBAMENDU-TXAKURREKIN LAN EGITEKO JARDUNALDIAK	2 / 18	9	1	IRAILA	URRIA	PRESENTZIALA PRESENTZIALA
ARDURADUN OPERATIBOEN PRESTAKUNTZA GERTAKARI ETA EKITALDIETARAKO	8 / 15	189	16	IRAILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
POLIZIA-DOKUMENTOSKOPIA. DOKUMENTUETAN ANTZEMANDAKO SEGURTASUN-NEURRI ETA FALTSIFIKAZIO OHIKOENAK	1 / 30	4	2	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
TXAKUR-GIDARIAK. LUIZIETAKO ESPEZIALISTA. 4. MODULUA. LARRIALDIEI ERANTZUTEA 4.2 AZPIMODULUA. ERRESKATEA ETA SALBAMENDUA.	1 / 56	--	1	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
METALEZKO KARTUTXOAK KARGATZEA	1 / 5,50	4	--	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
PERITU-TXOSTENAK	1 / 2,50	36	16	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
HPLC-INF-2200C	1 / 16	--	1	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
AUZITEGIKO SARRAILAGINTZA-IKASTAROA	1 / 35	4	--	AZAROA	ABENDUA	PRESENTZIALA
PERITU JUDIZIALA, DOKUMENTOSKOPIAN ADITUA PERITO/A JUDICIAL EXPERTO/A EN DOCUMENTOSCOPIA	1 / 300	--	2	ABENDUA	2025EKO MAIATZA	ONLINE
FIGURANTZIA TAKTIKOA ETA KUDEATZAILEEN PRESTAKUNTZA FIGURANCIA TÁCTICA Y FORMACIÓN DE MANEJADORES	1 / 80	8	2	ABENDUA	ABENDUA	PRESENTZIALA

IKASTARO AURRERATUA: SUTE ELEKTRIKOAK IKERTZEA	1 / 49,75	5	4	AZAROA	2025EKO URTARRILA	PRESENTZIALA
ISURKETEN BEGI-IKUSKAPENAK: GAINAZALEKO UR KONTINENTALEN LAGINAK BILTZEA	1 / 12	16	4	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA
OSASUN-LAGUNTZA TAKTIKOA	1 / 28	13	--	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA
"ENCASE" FORENSE DIGITALA	1 / 20	1	--	ABENDUA	ABENDUA	ONLINE

Ertzaintza. IBILBIDE PROFESIONALA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
WORD OINARRIZKOA	2 / 20	151	59	OTSAILA	IRAILA	ONLINE
WORD BITARTEKOA	2 / 25	34	15	OTSAILA	IRAILA	ONLINE
EXCEL OINARRIZKOA	2 / 20	110	31	OTSAILA	IRAILA	ONLINE
EXCEL BITARTEKOA	2 / 25	47	10	OTSAILA	IRAILA	ONLINE
ACCESS OINARRIZKOA	1 / 20	23	4	OTSAILA	APIRILA	ONLINE
ACCES BITARTEKOA	1 / 20	6	1	OTSAILA	APIRILA	ONLINE
EGUNERATZE JURIDIKOA	1 / 25	357	121	OTSAILA	MARTXOA	ONLINE
EUSKARA LANABES	1 / 20	22	7	OTSAILA	APIRILA	ONLINE
NIRE EUSKARA HOBETZEN	1 / 20	51	33	OTSAILA	APIRILA	ONLINE
DELITUARI BELDUR IZATEA: ERREGISTRATUTAKO DELITUAK ETA EZKUTUKO BIKTIMIZAZIOA	1 / 25	13	10	OTSAILA	APIRILA	ONLINE
MASKULINITATEAK: GIZONAK ETA BERDINTASUNA: ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIAK	1 / 25	18	6	OTSAILA	MARTXOA	ONLINE

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA	1 / 25	11	4	OTSAILA	MARTXOA	ONLINE
---	--------	----	---	---------	---------	--------

Ertzaintza. EUSKALDUNTZEA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZA	1 / PL2-700	58	23	2023KO URRIA	APIRILA	PRESENTZIALA
EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZA	1 / PL1-560	21	12	2023KO AZAROA	APIRILA	PRESENTZIALA
EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZA	1 / PL1-560	21	6	MAIATZA	URRIA	PRESENTZIALA
EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZA	1 / PL2-700	77	21	URRIA	2025EKO APIRILA	PRESENTZIALA
EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZA	1 / PL1-560	18	9	AZAROA	2025EKO APIRILA	PRESENTZIALA

Udaltzaingoa. AGENTETARA SARTZEA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
ANDOAIN, AMURRIO, ARETXABALETA, ARRASATE, ARRIGORRIAGA, ASTIGARRAGA, BASAURI, BERGARA, BERMEO, BILBO, DONOSTIA, EIBAR, ELORRIO, ERRENERIA, ETXEBARRI, GERNIKA, GETXO, GORLIZ, HONDARRIBIA, IRUN, LASARTE-ORIA, MUNGIA, PASAIA, PORTUGALETE, SANTURTZI, SESTAO, SOPELA, SORALUZE, TOLOSA, VITORIA-GASTEIZ, ZAMUDIO, ZARAUTZ, ZIZURKIL ETA ZUMARRAGA	1 / 1150	140	87	MAIATZA	2025	ERDIPRESENTZIALA
APARTEKO EGONKORTZE-PROZESUETATIK DATOZEN UDALTZAINENTZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA	1 / 240	53	24	IRAILA	AZAROA	ERDIPRESENTZIALA

Udaltzaingoa. OFIZIALORDETARA IGOTZEA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
DONOSTIA, ERRENERIA, HERNANI, TOLOSA ETA VILLABONA	1 / 90	10	--	2023KO ABENDUA	URTARRILA	PRESENTZIALA

Udaltzaingoa. IGOERA OFIZIALA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			

ZORNOTZA, ARRASATE, BILBO, ERRETERIA ETA HERNANI	1 / 109	7	--	2023KO ABENDUA	URTARRILA	PRESENTZIALA
--	---------	---	----	-------------------	-----------	--------------

Udaltzaingoa. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
PISTOLAZ TIRO EGITEKO TEKNIKAK ETA TAKTIKAK	36 / 12	294	33	URTARRILA	ABENDUA	PRESENTZIALA
GERTAKARI KRITIKOETARAKO POLIZIA-PROZEDURAK	16 / 30	110	18	URTARRILA	EKAINA	PRESENTZIALA
POLIZIAREN DEFENTSA PERTSONALA	16 / 12	158	23	URTARRILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
OINARRIZKO BIZI-EUSKARRI INSTRUMENTALIZATUA ETA BESTE LARRIALDI-EGOERA BATZUETAN JARDUTEA	15 / 11	93	18	OTSAILA	UZTAILA	PRESENTZIALA
UDALTZAINGOKO BITARTEKOENTZAKO OINARRIZKO TIRO-TEKNIKAK	6 / 30	72	44	OTSAILA	URRIA	PRESENTZIALA
UDALTZAINGOKO BITARTEKO LANGILEEN POLTSA OSATZEA	2 / 216	241	163	MARTXOA	AZAROA	ERDIPRESENTZIALA
ETXEKO ETA GENERO INDARKERIA-KASUETARAKO POLIZIA-KOORDINAZIOARI BURUZKO IKASTAROA: EBA PROIEKTUA	4 / 8	68	21	MARTXOA	APIRILA	PRESENTZIALA
BERRI TXARRAK EMATEA	5 / 6	44	11	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA
HERRITARRAK ARTATZEA ETA KRISIAK KUDEATZEA TELEFONOZ	5 / 6	38	27	MARTXOA	APIRILA	PRESENTZIALA
UDALTZAINENTZAKO OINARRIZKO TIRO-TEKNIKAK	3 / 30	55	15	APIRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
BIDE-HEZKUNTZAKO BEGIRALEENTZAKO PRESTAKUNTZA, I. MAILA	1 / 60	14	1	MAIATZA	MAIATZA	ERDIPRESENTZIALA
DROGEN ERAGINPEAN DAUDEN GIDARIAK DETEKTATZEA	4 / 6	124	38	EKAINA	IRAILA	PRESENTZIALA
TIRO-PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA	1 / 42	5	--	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
PISTOLAZ TIRO EGITEKO TEKNIKAK ETA TAKTIKAK	10 / 6	127	12	URRIA	ABENDUA	PRESENTZIALA
UDALTZAINGOKO LAGUNTZAILEEN PRESTAKUNTZA	1 / 78	40	23	AZAROA	ABENDUA	ERDIPRESENTZIALA

PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUA. SARRERA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
EUSKADIKO PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUAN SARTZEA, SUHILTZAILE-GIDARI KATEGORIAN	1 / 420	55	--	EKAINA	EKAINA	PRESENTZIALA
EUSKADIKO PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUAN SARTZEA, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, SUTEAK PREBENITZEKO ETA ITZALTZEKO ZERBITZUAN, AZPIESKALA OPERATIBOAN, SUHILTZAILE-KATEGORIAN	1 / 532	108	6	IRAILA	2025EKO OTSAILA	PRESENTZIALA
EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO 13 SUHILTZAILE LANPOSTU MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO	1 / 420	13	--	AZAROA	2025EKO OTSAILA	PRESENTZIALA

PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUA. BITARTEKOEN POLTSA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.- ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUKO SUHILTZAILE GIDARIEN POLTSARAKO PRESTAKUNTZA ARABA	1 / 420	20	--	URTARRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUKO KABO-POLTSARAKO PRESTAKUNTZA, BILBOKO SUHILTZAILEEN ZERBITZUKO ESKU HARTZEKO KABOETARAKO EGOKITUA	1 / 106	15	--	URTARRILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUKO SARJENTU-POLTSARAKO PRESTAKUNTZA BIZKAIA	1 / 197	24	2	IRAILA	URRIA	PRESENTZIALA

PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUA. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
SUIZIDIO-SAIOETAN ESKU HARTZEA	14 / 16	180	10	URTARRILA	EKAINA	PRESENTZIALA
ERRESKATEA GAINAZALEAN	3 / 12	31	--	OTSAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
ARRISKU ELEKTRIKOAREN ETA PROPULTSIO BERRIKO IBILGAILUEN AURREAN ESKU HARTZEA	6 / 16	206	--	OTSAILA	MARTXOA	PRESENTZIALA
URPEKO ERRESKATEA	1 / 12	33		APIRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
AUTOCAD	3 / 15	7	1	APIRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
BASO-SUTEAK DETEKTATZEKO ZUZENDARITZA TEKNIKOA (SUTEAK ITZALTZEKO A ZUZENDARI TEKNIKOA)	2 / 50	17	--	MAIATZA	AZAROA	ERDIPRESENTZIALA
ARRISKU NUKLEARRA, ERRADIOLOGIKOA, BIOLOGIKOA ETA KIMIKOA DUTEN GERTAKARIETAN ESKU HARTZEA	14 / 14	157	--	APIRILA	URRIA	PRESENTZIALA
ERAIKINAK KONTROLATZEKO ETA BABESTEKO TEKNIKAK PROGRESIO-SUTEEN KASUAN	14 / 7	152	2	APIRILA	URRIA	PRESENTZIALA
LARRIALDIKO OSASUN-LAGUNTZA	1 / 18	19	1	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
ARRISKU NUKLEARRA, ERRADIOLOGIKOA, BIOLOGIKOA ETA KIMIKOA DUTEN LARRIALDIETAKO ZUZENDARITZA	1 / 7	29	--	EKAINA	EKAINA	PRESENTZIALA
IKASTARO AURRERATUA: SUTE ELEKTRIKOAK IKERTZEA	1 / 49,75	8	1	AZAROA	2025EKO URTARRILA	PRESENTZIALA
BASO-SUTEAK DETEKTATZEKO ZUZENDARITZA TEKNIKOA (SUTEAK ITZALTZEKO B ZUZENDARI TEKNIKOA)	1 / 50	1	--	AZAROA	ABENDUA	ERDIPRESENTZIALA
ERREAKZIO- ETA ERRESISTENTZIA-SAIKUNTZAK SUAREKIN	1 / 5,50	5	1	EKAINA	EKAINA	PRESENTZIALA
FOR ₁ PRESTATZAILEAK TREBATZEA	4 / 21	51	3	EKAINA	AZAROA	PRESENTZIALA

AGINTARIEN KUDEAKETA OPERATIBOA	1 / 14	18	2	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
ESKU-HARTZE SANITARIOA EREMU BEROAN	6 / 6	191	1	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA
URETAKO MOTOAK MANEIATZEA. II. MAILA	1 / 4	6	--	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
ERAIKUNTZAKO PATOLOGIAK ETA AKATSAK DETEKTATZEA	1 / 18	12	8	URRIA	URRIA	PRESENTZIALA
H ₂ -AREN ARRISKUAK ETA GARRAIO-TEKNOLOGIA BERRIAK	3 / 16	27	--	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIako ZUZENDARITZA. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
BERRI TXARRAK EMATEA	1 / 6	3	6	MARTXOA	MARTXOA	PRESENTZIALA

Boluntarioak. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
"TETRA" KOMUNIKAZIOAK	1 / 4	24	17	OTSAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOTZAN SARTZEKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA	1 / 80	12	6	MAIATZA	ABENDUA	ERDIPRESENTZIALA

BALDINTZA METEOROLOGIKO TXARRAK SEGURTASUNAREN IKUSPEGITIK	1/5	20	--	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA
--	-----	----	----	--------	--------	--------------

Beste kolektibo batzuk. EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
		GIZONAK	EMAKUMEAK			
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA BIDE-SEGURTASUNAREN ARLOAN	1/16	1	1	URTARRILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
4 x 4 IBILGAILUAK GIDATZEA	1/15	5	5	OTSAILA	OTSAILA	PRESENTZIALA
ZEZENSUZKOETARAKO ADITU GISA AITORTUTAKO KONTSUMITZAILE-TALDEETAKO ARDURADUNENTZAKO PRESTAKUNTZA	2/3	52	4	APIRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
ATARIAK ETA ETXEBIZITZAK MODU EZ-SUNTSITZAILEAN, ESTALIAN ETA BIZKORREAN IREKITZEA	1/28	2	--	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
IREKIERAK	1/120	2		MAIATZA	EKAINA	PRESENTZIALA
LANDA-KRIMINALISTIKAKO OINARRIZKO IKASTAROA: "ERREAKTIBO MEKANIKOAK ETA MAKRO ARGAZKIA BEGI-IKUSKAPEN TEKNIKO-POLIZIALEAN"	1/14	16	4	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
SOS DEIAK-LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROKO TELEFONO-KUDEATZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA	2/122	13	13	MARTXOA	AZAROA	PRESENTZIALA
IBILGAILU-ISTRIPUA IZAN DUTENAK ERRESKATATZEA	1/3	20	--	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA
IKASTARO AURRERATUA: SUTE ELEKTRIKOAK IKERTZEA	1/49,75	2	--	AZAROA	2025EKO URTARRILA	PRESENTZIALA

JARDUNALDIAK

IKASTAROA	EDIZ.-ZK. / EDIZ.-ORDUAK	KOLEKTIBOAK	IKASLEAK		HASIERA	AMAIERA	MODALITATEA
			GIZONAK	EMAKUMEAK			
PAREZ-PARE: VALENTZIAKO SUTEA: IKASI BEHARREKO IKASGAIAK	1/4	ERTZAINZA	12	2	APIRILA	APIRILA	PRESENTZIALA
		UDALTZAINGOA	11	2			
		PREBENTZIO, SU- ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUA	26	5			
		LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA	3	2			
		BOLUNTARIOAK	7	1			
		BESTE KOLEKTIBO BATZUK	8	10			
PAREZ-PARE: GIZA SALEROSKETA, PROSTITUZIOA ETA PORNOGRAFIA. LOTUTAKO FENOMENOEN ERRONKA ZAHARRAK ETA BERRIAK	1/4	ERTZAINZA	43	25	MAIATZA	MAIATZA	PRESENTZIALA
		UDALTZAINGOA	12	4			
		BESTE KOLEKTIBO BATZUK	3	14			
PAREZ-PARE:	1/4	ERTZAINZA	24	8	AZAROA	AZAROA	PRESENTZIALA

INDARKERIA-PORTAERAK EBALUATZEA		UDALZAIINGOA	18	4			
		BESTE KOLEKTIBO BATZUK	4	7			

HAUTAKETA- ETA EBALUAZIO-ARLOA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIA-KIDEGOAK ETA UDALTZAINGO-ZERBITZUAK (EUSKAL POLIZIA)

- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako (Ertzaintza eta udaltzaingoak) eta udaltzaingo-zerbitzuetako oinarrizko eskalako agenteen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozesua egitea: 3.721 hautagai (2.326 gizonezko eta 1.395 emakumezko).
- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako agente-kategorian sartzeko ikastaroko jarrerren balorazioa (P32MP): 249 hautagai (153 gizon eta 96 emakume).

ERTZAINZA

- Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente-kategoriako karrerako funtzionarioak Babes Pertsonaleko espezialitateko ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura egitea.
- Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura egitea.
- Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente-kategoriako karrerako funtzionarioak Esku-hartzeko espezialitateko ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura egitea.
- Ertzain-kategorian sartzeko ikastaroko jarrerren balorazioa, Bide-segurtasuneko espezialitatean (P32SC): 66 izangai (56 gizon eta 10 emakume).
- Ertzain-kategorian sartzeko ikastaroko jarrerren balorazioa, Ikerketa Kriminaleko espezialitatean (P32IC): 106 izangai (49 gizon eta 57 emakume).
- Ertzaintzaren arrisku nuklear, erradiologiko, biologiko eta kimikoko hautaketa-prozesuaren jarraipena praktikan: 20 hautagai (20 gizon).
- Ertzaintzaren Babes Pertsonaleko hautaketa-prozesuaren jarraipena praktikan: 36 izangai (34 gizon eta 2 emakume).
- Ertzaintzako ofizialordeen hautaketa-prozesuaren jarraipena praktikan: 211 izangai (174 gizon eta 37 emakume).
- Ertzaintzaren XXXI. promozioaren hautaketa-prozesuaren jarraipena praktikan: 377 izangai (259 gizon eta 118 emakume).
- Ertzaintzaren XXXII. Promozioaren hautaketa-prozesuko praktiketako jarraipena: 1 izangai (1 gizon).

UDALTZAINGOA

- Euskadiko Udaltzaingoen Oinarrizko Eskalako agente lehenaren kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura bateratua egitea. 19 udalek parte hartu dute prozesu horretan. Hauexek dira: Abadiño, Andoain, Arrasate, Azkoitia, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Derio, Donostia, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Getxo, Ibarra, Irun, Sestao, Trapagaran, Zalla eta Zarautz.
- Udaltzain-kategorian sartzeko ikastaroko jarrerren balorazioa (MP125-MP126): 12 izangai (6 gizon eta 6 emakume).
- Udaltzaingoko ofizialen kategoriara igotzeko hautaketa-prozesuen jarraipena praktketan: 7 hautagai (6 gizon eta emakume 1).
- Udaltzaingoko ofizialorde-kategoriara igotzeko hautaketa-prozesuen jarraipena praktketan: 52 izangai (48 gizon eta 4 emakume).
- Udaltzain-kategoriarako hautaketa-prozesuen jarraipena praktketan: 124 izangai (95 gizon eta 29 emakume).
- Egonkortze-prozesuaren jarraipena praktketan, udaltzain-kategoriarako: 77 izangai (53 gizon eta 24 emakume).

UDALEK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAK

Bizkaia

- Zornotza (ofizial-plaza 1), Arrigorriaga (ofizialorde-plaza 1), Barakaldo (6 ofizialorde-plaza), Durango (ikerketa-agenteen 5 plaza), Etxebarri (zerbitzu eginkizunetako ofizialorde 1), Mungia (lehen agente 1), Ondarroa, Markina-Xemein eta Lekeitio (7 udaltzain-plaza).

Gipuzkoa

- Tolosa (ofizial-plaza 1), Bergara (7 udaltzain-plaza), Hernani (9 udaltzain-plaza), Tolosa (ofizial plaza 1), Urretxu (ofizialorde 1), Villabona (2 udaltzain), Zumarraga (ofizialorde 1).

UDALTZAINGOKO BITARTEKO AGENTEAK HAUTATZEKO PROZESUAK

Talde-dinamiken 51 txanda egin dira, Udaltzaingoko bitarteko agenteen poltsa sortzeko prestakuntza-ikastaroaren bigarren fasean: 289 izangai (181 gizon eta 108 emakume).

UDALTZAINGOKO LAGUNTZAILEAK HAUTATZEKO PROZESUAK

Epai judiziala betez, Udaltzaingoko laguntzaileen poltsa bat hautatzeko prozesua egin da, EAEko toki-korporazioetan aldi baterako zerbitzuak emateko: 75 izangai (45 gizon eta 30 emakume).

UDALTZAINGOKO LANPOSTUAK FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK

Bizkaia

- Barakaldo (2 agente-plaza).

Gipuzkoa

- Ordizia (agente-plaza 1), Urretxu (1 p. Agentea).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SUTEAK PREBENITZEKO ETA ITZALTZEKO ZERBITZUETAKO HAUTAKETA-PROZESUAK

- Hautaketa-prozesu bat egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuetako Administrazio Bereziko Eskalan, Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuan, Azpieskala Operatiboan eta Suhiltzaile kategorian sartzeko. Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera egin da deialdia.
- Praktiken jarraipena egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuetako Administrazio Bereziko Eskalan, Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuan, Azpieskala Operatiboan eta Suhiltzaile kategorian sartzeko hautaketa-prozesuan. (Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera egin da deialdia). (81 gizon eta 2 emakume).

BESTE BATZUK

- Bi hautaketa-prozedura egin dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako (C287 eta C298) irakaskuntza-, hautaketa- edo ikerketa-eginkizunetarako zerbitzu-eginkizunak esleitzeko, Ertzaintzako langileei zuzendurik.
- Elkarrizketa pertsonalak egin dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako irakasle bat hautatzeko (langile lan-kontratuduna).
- Elkarrizketa pertsonalak egin dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako barrako arduradun bat hautatzeko (langile lan-kontratuduna).

